KIROLA: AITOR ZABALETA, GORLAKO IGOERAREN ATARIAN /11

Goienka2a

EGUBAKOITZA • 2005eko maiatzaren 13a • V. urtea • 199. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

Goienka2a

MAGO ONENAK ASTEBURU OSOAN ELGETAN

DEBAGOIENA

Rebeka Uberak ordezkatuko du Aintzane Ezenarro /5

PRUDEN GARTZIA / LIBURUZAINA

"Joan Perez Lazarragaren birraitona izan daiteke Cervantesen On Kixote" **/8-9**

BERGARA

Astiazaran, Brechet eta Alberto, Deporren berrian /7

IKER BARANDIARAN

Salmentak, 2003an baino %8,3 gehiago

MCCko presidenteak, Jesus Cataniak, aditzera eman zuen 2004an emaitza onak izan zituztela. Iaz 10.459 miloi euroko salmentekin itxi zuten urtea; 2003koekin alderatuta, %8,3 hazi ziren. Korporazioaren inbertsio globalari dagokionez, 730 miloi eurokoa izan zen eta, MCCko arduradunen esanetan, horri esker 2.624 lanpostu berri sortu zituzten. Hain zuzen ere, MCCko lantaldea 71.000 lagunek osatzen zuten iaz. Bestalde, iaz Garaia Poloa abiapuntu hartuta, berrikuntzen alorrari bultzada berezia ematen hasi ziren, eta hala jarraituko dute. 2008rako, atzerrian 70 bat enpresa izan gura dituzte –gaur egungoak baino 20 bat gehiago–, eta 25.000 lanpostu sortu gura dituzte. **/4**

ASTEKO GAIA: BERRERABILPENAREN KULTURA

Organikoak birziklatzeko saiakera

Hondakinen bilketa selektiboa gero eta errotuago dago Debagoienean. Mankomunitatearen eskutik, ia hondakin mota guztiak birziklatzera botatzeko modua dugu. Eta aurten, plan esperimental bat egingo du Mankomunitateak ikusteko ea merezi duen zabor organikoa ere batzea gero konposta egiteko.

Birziklatzera gero eta gehiago botatzen dugu debagoiendarrok: iazko tasa 2003koa baino %10,1 altuagoa izan zen. Estatuko maila baino askoz altuagoa da hori. Hala ere, horren beste aldea da gero eta zabor gehiago produzitzen dugula. Gauza bera gertatzen da herrialde industrializatu guztietan. **/2-3**

Debagoieneko abere hiltegia ez ixtea erabaki du Mankomunitateak

Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Batzordeak ezohiko bilera egin zuen eguaztenean eta erabaki zuen Zubillagako abere hiltegia ez ixtea. Mankomunitateak hobetsi zuen, EAJ eta EA alderdien aldeko botoekin eta Aralar eta PSE-EEkoen abstentzioarekin, enpresa misto bat sortzea. Erabaki zuen, era berean, negoziazio prozesu bat irekitzea Hiltegia Bizirik plataformakoekin. **/5**

ARETXABALETA

Kultura etxea 2007rako egingo dute Herriko plazan

Kultura etxea, gaztelekua, liburutegia, musika eskola eta erabilera anitzeko aretoa izango dituzte laster Aretxabaletan. Hala erabaki zuen udalbatzak osoko bilkuran, eta lehenbailehen hasi gura ditu lanak 2007rako bukatuta izateko. Herriko plazan dagoen zinema zaharra bota eta hantxe egingo dute eraikina. **/7**

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/6 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/18-19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a

Zabor organikoa birziklatu nahia

■ Mankomunitateak zabor organikoarekin konposta egiteko saiakera egingo du aurten

■ Ibarrean gero eta gehiago birziklatzen dugu, baita gero eta zabor gehiago sortu ere

LEIRE KORTABARRIA

Hondakinen bilketa selektiboaren eta birziklatzearen ildotik beste urrats bat emango du laster Debagoienak. Izan ere, Mankomunitateak hondakin organikoekin konposta egiteko aukera baloratzeko plan pilotu bati ekingo dio aurten. Plan pilotu horretan parte hartuko dute 50 bat familiak, eta janari-hondarrekin eta etxeetako bestelako hondakin organikoekin konposta egiteko tresna erabili beharko dute. Izan ere, behatu nahi da ea etorkizunean, Gipuzkoa osoan, bideragarria den gai organikoen bilketa selektibo bat gero horiekin konposta egiteko; gaur egun, hondakin mota horiek zabor-poltsara botatzen dira, zabortegietara, alegia.

Konposta egiteko eta bideratzeko baldintza onenak dituzte lorategiak dituzten etxeek eta baserriek, konposta ongarri naturala delako. Hortaz, mota horietako etxeetan egingo dute plan pilotu hori. Konpostagailuak erabiltzeko kanpainak egin izan dituzte Euskal Herrian hainbat talde ekologistak, baina dituen zailtasunengatik –ingurune egokia behar da, konpostagailuak erostea zaila da…–,orain arte erakundeek ez dute hori bultzatu.

Hori, etorkizunera begira; baina gaur egun debagoiendarron ohiturak jakiterik ere badago. Debagoienean, bilketa selektiboaren eta birziklatzearen kontzientzia badago: 2004. urteko ekitaldian, gaikako bilketa %28,8 puntukoa izan zen, aurreko urtean baino %10,1 gehiago (763 tona gehiago birziklatzeko). Maila hori oso altua da Estatuko mailarekin konparatuz. Hala ere, birziklatzera gehiago botatzen den moduan, orotara, zabor gehiago ere produzitu da: iaz, 2003an baino %5 gehiago. Joera hori berbera da herrialde industrializatuetan, eta horretan eragin nahi dute erakundeek.

Debagoiena eta EAE, oro har, Estatuaren batez bestekoaren goitik daude. Ecoembes ontzien kudeaketarako sistema integratuen enpresaren datuen arabera, EAEko 100 familiatik 91k diote modu selektiboan botatzen dituz-

Zabor organikoa kudeatzeko plan esperimentala 50 familiarekin egingo dute

Erakundeen nahia da zabor gero eta gutxiago sortzea, baina euren eragina mugatua da

nolako ikasketak halako lana

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ARRASATEko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).
Bigarren zikloa
• Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
• Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
• Informatikan Ingeniaritza.
• Industri Ingeniaritza.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza.
GOIERRIko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK
ARRASATEko Campusa
943 71 21 92
• 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
• Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
OÑATIko Campusa
Lehen zikloa
• Zuzendari Idazkaritza.
Ziklo luzea
• Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
- Finantza Zuzendaritza.
- Merkataritza Zuzendaritza.
- Erakundeen Kudeaketa.
BIDASOAko Campusa
• Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
- Nazioarteko Merkataritza.
- Enpresa Logistika eta Garraioa.

JARDUNALDI IREKIAK
OÑATIko Campusa
943 71 80 09
• maiatzak 12, 18:00etan.
BIDASOAko Campusa
943 63 91 29
• maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
ESKORIATZAko Campusa
Lehen zikloa
• Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
• Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
• Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
• Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.
Bigarren zikloa
• Psikopedagogian Lizentziatura.
- Hizkuntzen Psikopedagogia.
- Esku-hartze Psikopedagogikoa.
Ziklo luzea
• Giza Zientziak Lizentziatura.
- Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK
ESKORIATZAko Campusa
943 71 41 57
• maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

Aretz
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta paellak eramateko

LEIRE KORTABARRIA

Iaz, 2003. urtean baino 763 tona gehiago (%10,1eko igoera) bota zen birziklatzera ibarrean.

tela hondakinak. Arrazoiak dira ingurumenarekiko kezka (%86) eta birziklatzea sustatu nahia (%72); horrela botatzen ez dutenek ohitura faltari egozten diote (%55) edo leku faltari (%22).

HONDAKIN MOTA GUZTIAK

Hondakinen gaikako bilketa selektiboari dagokionez, lehenengo edukiontziak, beirazko botilenak, ipini zituztenetik agudo egin du aurrera horren aldeko kulturak. Hala, gaur egun ia hondakin mota guztiak birziklatzera botatzeko modua dugu ibarrekook. Gehientsuenak Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen ditu; Aramaion, Zuiako koadrilak. Zaborra birziklatzera botatzeko lau edukiontzi –beirazko botilak, papera eta kartoia, etxeko edukiontziak eta ehunkiak– daude; horrez gain, pilak, sukaldeko olioa, altzari eta etxeko traste zaharrak... batzeko zerbitzua ere ematen dute erakundeek.

Zabor mota ezohikoagoak batzeko hiru garbigune ditugu Debagoienean astelehenetik zapatura zabalik: Arrasaten, Ibarretakoa; Bergaran, San Kristobalgoa; eta Oñatin, Urrutxukoa.

Bilketa selektiboaren kultura gero eta errotuagoa dago Debagoienean ere. Horren adibide, Aramaioko Udalak iaz izandako ekimen bat: doan banatu zituen gaika sailkatutako zakarrontziak, hondakinak poltsa desberdinetara botatzeko. Sukalde berriak ere gutxienez bi zakarrontzirekin datoz.

GEHIENA, ZABORRA

Hondakin motari dagokionez, 2004. urteko ekitaldian produzitu zen gehiengoa zaborra izan zen, zabortegietan pilatzen dena: hondakinen %62,6. Bigarren ugariena papera izan zen (%9,7); gero, etxeko obretako hondakinak (%8), edukin-beira (%6,1) eta edukiontziak (%2,9). %2ren inguruko portzentaiak izan zituzten bolumen handiko hondakinek, inausketa-hondakinek eta egurrak. Oso portzentaia txikiak izan zituzten gainerako hondakin motek. Debagoieneko Mankomunitateko arduradunen esanetan, ia hondakin mota guztietan batu zen 2003an baino gehiago.

Batutako hondakinen tratamentua dator gero. Hondakin mota guztiek dute aprobetxatu daitekeen zerbait, eta erakundeek enpresa askotara bidaltzen dituzte batutako hondakinak. Material arriskutsua banatu egiten da, tratamendu berezia emateko; berriro erabili daitekeena horretarako tratatzen da.

Hondakin motak

PAPERA ETA KARTOIA
Edukiontzi urdinetan. Hona bota behar dira kartoizko janari-ontziak.

BEIRA
Beira berritua ateratzen da hortik. Ez dira bota behar ispiluak, bonbillak... ontziak bakarrik.

PLASTIKOZKO ONTZIAK
Ontziak bakarrik bota; baita plastikozko poltsak, poliexpanezko bandejak, latak, brik ontziak...

EGUR GARBI ETA ZIKINA
Arrasate, Bergara eta Oñatiko garbiguneetan batzen da.

TXATARRA
Hori ere garbiguneetan bakarrik utz daiteke birziklatzeko.

BOLUMEN HANDIKOAK
Astean behin jaso egiten dituzte. Garbiguneetan, edozein egunetan utz daitezke.

EHUNKIAK
Edukiontzi zurian batzen dituzte arropak, zapatak eta ehunezko edozein hondakin.

PILAK
Puntu Berde Mugikorrean eta zenbait dendatan jasotzen dituzte.

ILDO ZURI-MARROIA
Elektratresna handiak eta hondakin elektriko-elektronikoak, garbiguneetara.

BOTIKAK
Osasun Sailak jasotzen ditu farmaziatan. Iraungita daudenek ere balio dute.

SUKALDEKO OLIOA
Puntu Berde Mugikorretan jasotzen da; Aramaion, Bañera parkeko etxean.

AUTO-OLIOA
Garbiguneetan edo Ekogunea sareko autotailerretan; Aramaion, Iturrosten batzen dute.

OBRA-HONDAKINAK
Etxeetako obren hondakinak bakarrik utz daitezke garbiguneetan, ez obra handienetakoak.

INAUSKETA-HONDAKINAK
Lorategietako edo zuhaitzak inaustu eta geroko hondakinak, garbigunera.

ETXEKO HONDAKIN TOXIKOAK
Pintura, disolbatzaileak... ontzietan bota behar dira garbiguneetan.

BASERRIETAKO PLASTIKOAK
Gurean, Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteak batzen ditu herriz herri hilean behin.

MIKEL JAIO / MANKOMUNITATEKO INGURUMEN ARDURADUNA

"Edukiontzien erabilpenak hobera egin du"

Debagoienean –Aramaion izan ezik–, Mankomunitateak batzen ditu modu selektiboan ia hondakin mota guztiak.

Zeintzuk dira 2004ko kanpainaren ondorioak?

Bi dira: batetik, Debagoienean bilketa selektiboak eta, beraz, birziklatzeak gora egin dute, eta hori datu ontzat ematen dugu; baina, bestetik, prebentzioan ez da hobera egin, hau da, hondakin produkzioa ere igo egin da, eta hori negatiboa da. Joera hori murriztea da zailena; erakundeon eragina mugatua da.

Edukiontziak eta garbiguneak, biak erabiltzen dira?

Biak erabiltzen dira, baina edukiontziak eta kalean ematen diren zerbitzuak gehiago, hurbiltasunagatik erosoagoak direlako herritarrentzat. Esate baterako, bolumen handiko hondakinen kasuan (etxeko altzariak edo trasteak...), zerbitzua astean behin ematen da zabor edukiontziaren ondoan, bakoitzaren etxetik gertu, eta beraz, zerbitzu hori erabili nahi eta ahal izanez gero, garbigunera joateko beharra kentzen duzu. Dena dela, hondakin mota gehienak eraman daitezke garbiguneetara, eta oso praktikoa da hondakin mota asko batera eramateko, etxean obrak egiten direnean, edo fluoreszenteak, bateriak, pinturak, disolbatzaileak eta antzerakoak eramateko.

Mikel Jaio.

Behar bezala erabiltzen dira edukiontziak?

Erabilerak hobera egin du. Hasieran ikusten zen eskatzen ez ziren hondakinak botatzen zirela edukiontzietara: esaterako, ontziak batzekoan ontziak ez ziren plastikozko gauzak botatzen zituen jendeak. Orain, edukiontzi arinen zerbitzuaren behar ez diren materialen bilketa %14koa da, nahiko baxua inguruko lurraldeekin konparatuz.

Servimasa
Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak
Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

Enpresentzako %100-ean diruz lagundutako ikastaroak
Etengabeko formazio eredu berria
AKADEMIA BASTIDA
• Kalitatea
• Ingurugiroa
• Laneko arriskuen prebentzioa
• Informatika
• Disenua
• Gestioa
• Hizkuntzak
• Giza baliabideak
Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es
Baita zure enpresan bereziki egokitutako ikastaroak

I.B.

Argazkian, MCCko arduradunak prentsaurrean: Juan Maria Otaegi, Jesus Catania, Fernando Gomez-Acedo eta Constan Dacosta.

10.459 milioi euroko salmentekin itxi zuen MCCk 2004ko jardunaldia

Atzerrian zabaldu arren, Euskal Herrian ere lanpostuak sortuko dituzte

IKER BARANDIARAN

MCCko presidente Jesus Cataniak eman zuen 2004ko datuen berri: tartean, 10.459 milioi euroko salmentak. Urte ona izan zela azpimarratu zuen. 2008ra artean 25.000 lanpostu gehiago sortzeko asmoa dutela aurreratu zuen.

MCCko presidenteak, Jesus Cataniak, eman zituen joan den urteko emaitzak eta datuak. Berarekin batera zeuden Finantza Saileko presidenteorde Juan Maria Otaegi, Industria Saileko presidenteorde Fernando Gomez-Acedo, eta Banaketa Saileko Constan Dacosta. Bakoitzak bere alorrean, 2004ko jardunaren berri eman zuten denek, azalpenak emanez.

MCCko arduradunak baikor ziren iazko jardunaldiko emaitzekin. 10.459 milioi euroko salmentekin itxi zuten urtea, eta horiek, 2003koekin alderatuta, %8,3 hazi ziren. Horrez gain, azpimarratu zuten MCCren inbertsio globala 730 milioi eurokoa izan zela eta, horri esker, 2.624 lanpostu berri sortu zituztela. Hortaz, MCCko lantaldea 71.000 lagunek osatzen zuten iaz. Talde finantzarioaren ekitaldia ere oso positiboa izan zen, eta berrikuntzen alorraren aldeko apustu handia hasi zuten.

2008RAKO, 25.000 LANPOSTU GEHIAGO

2005eko lehenengo hiruhilabetekoa oinarri hartuta, iazkoarekin alderatuta aurten salmentak %8 haziko direla uste dute. Emaitzak %5 eta %8 artean hobetu gura dituzte.

MCCren asmoa da 2008an 17.000 euroko salmentak lortzea; eta 2008rako 25.000 lanpostu berri sortzea, 95.000 laguneko lantaldea izateko. 4.000 euroko inbertsioarekin lortu gura dute hori.

Mobilizazioak egingo ditu '18/98 eta gehiago' plataformak ibarrean

IRATI AGIRREAZALDEGI

18/98 makrosumarioa dela eta Debagoienean sortutako plataformak bere iritzia azaldu du lehen epaiketa amaitu eta epaiaren zain dauden honetan. Epaiketa nola joan den ikusita euren kezka agertu dute.

Jarrai, Haika eta Segi gazte erakundeetako kideak epaitu dituzte eta epaiketa horretan eskubide asko urratu direla esan dute plataformako kideek. "Gure kezka agertzeaz gain, akusatu guztiendako askatasuna eskatzen dugu, ikusita ez dagoela inolako deliturik; ez baita ezer frogatu", esan zuen Anaje Narbaizak.

EZ DA HORRELA

Maite Aristegiren hitzetan, "epaitu dena da biltzea, Euskal Herriaren alde lan egitea eta ideiak izatea. Epaiketan irregularasun asko egon arren epaiketa irabazi da eta orain epaia horren araberakoa izatea falta da".

Bestalde, esan zuten epaiketa hau ondoren etorriko direnen erreferentzia izango dela. "Beraz, euskaldunei eskatuko genieke zoli egon daitezen luze gabe plataforma honek mobilizazioetarako deia egingo duelako", esan zuen Xabier Zubizarretak.

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATE
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupo taldea

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Elkarrik 10.000 herritarren testigantzak batu nahi ditu

Testigantzak alderdi politikoei aurkeztuko dizkie

GOIENKARIA

Elkarrik hamar mila herritarren testigantzak batu nahi ditu bakearen eta normalizazio politikoaren inguruan. Kanpaina hau orain hasi eta urrira bitartean luzatuko da.

Zuk zergatik behar duzu bakea? Galdera honen 10.000tik gora erantzun bildu eta argitaratu nahi ditu. Erantzuten duen pertsonaren datu guztiak ez dira eskatzen, nahikoa da bere izena ematea eta beste erreferentziaren bat: adina, lanbidea, bizilekua edo bere testigantza.

Elkarrik negoziaziorako egutegi bat, bakerako eta normalizazio politikorako agenda bat, adostea proposatzen die alderdiei. Urrian, dosier bat argitaratuko dute jasotako erantzun guztiekin. Ondorio batzuk eta proposamen zehatz bat erantsiko dituzte. Txostena instituzioei eta indar politikoei aurkeztuko die ondoren. Euskko Legebiltzarrera eta Nafarroako Parlamentura eramaterakoan duela hilabete batzuk bertan utzitako 122.513 sinadurekin lotuko dute.

Hitzarmena sinatu dute MUk eta kooperatibek

Mondragon Unibertsitateak (Inazio Oliveri) eta Euskadiko Lan Elkarteko Kooperatiben Federazioak (Patxi Ormazabal) elkarlanerako hitzarmena sinatu dute oraingo astean. Helburua da kooperatiben kudeaketa tresnak indartzea. Honenbestez, ikerkuntza eta berrikuntza egitasmoak bultzatuko dituzte hainbat arlotan: kudeaketa, kalitatea, zuzendaritza dohainak, teknologia berriak… Era berean, MUko ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte federazioko kooperatibetan. Hitzarmena hiru urterako da. /GOIENKARIA

HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA
Urte 1era bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREKIN KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA SENDOTZEKO
- INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate Prebentzio eta Laguntza Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3, 2-3.atea
EGUNAK
Maiatzaren 25 eta ekainaren 1, 8, 15, 22.
ORDUA
10:30etatik 12:00etara
INFORMAZIOA
MUGI ZENTRUAN
943 77 08 05



JULEN IRIONDO

Aralar eta PSE-EEko ordezkariak abstenitu egin ziren bozketan, baina gehingoz onartu zuten akordioa.

Zubillagako hiltegia ez ixtea erabaki du gehiengoz Mankomunitateak

Negoziazioa irekiko dute hiltegia kudeatzeko enpresa mistoa sortzeko

GOIENKARIA

Mankomunitatearen egoitzan Zubillagako hiltegiaren etorkizuna izan zuten eztabaidagai eguaztenean ezohiko batzarrean. Bertan, gehiengoz erabaki zuen Mankomunitateko Gobernu batzordeak ez ixtea abere hiltegia.

Aralar eta PSE-EE bozketan abstenitu baziren ere gehiengoz akordio-marko bat onartu zuten.

Horretarako, Mankomunitateko Gobernu batzordeak hiltegia zabalik mantentzearen aldeko apustua egin du. Bestalde, Siadeco enpresak egindako azterketan proposatzen ziren lau alternatibetako hirugarrena hobetsi dute; hau da, hiltegia kudeatzeko enpresa mistoa sortzea. Beti ere zerbitzuaren publikotasuna aintzat hartuz.

Aukera horren alde egiteko negoziazio prozesua irekiko da Hiltegia Bizirik plataformakoekin. Negoziazio horretan hartuko dute parte Mankomunitateko lehendakari Inazio Lakuntzak eta hiltegiaren gaiaz arduratzen den Victoriano Gallastegik. Negoziazioa egingo dutenengan konfiantza izatea eskatzen dute.

Oraingoz ez zaio aterik itxiko Hiltegia Bizirik plataformak hobetsitako aukerari

Negoziazioa egingo dutenez, ez zaio aterik itxiko Hiltegia Bizirik plataformak hobetsitako kontzesio administratiboaren aukerari. Pribatizazioaren aldeko formula, ordea, ez da erabiliko.

EAJ ETA EA ADOS FORMULAREKIN

Joan zen astean Aralarrek, PPk, PSE-EEk eta Ezker Batuak hiltegia ez pribatizatzearen aldeko jarrera azaldu zuen. EAJk eta EAk euren esanei erantzun diete erabat zuzenak ez direlako.

Ernesto Murgiondo EAko ordezkariak esan digu: "Euren idatzian diote Mankomunitateko Gobernu batzordeak hiltegia ixteko erabakia hartu zuela, eta hori ez da horrela; baliteke norbanakoren batek hori esatea, baina ez da batzordean inoiz horrelakorik erabaki" .

Hitzarmenerako Mahaia Arantzazun batuko da bihar

GOIENKARIA

Nazio Eztabaidaguneak bultzatu duen Gatazkaren Konponbidea Sustatzeko Batzordea Arantzazun batuko da zapatuan. Oinarrizko Hitzarmena Demokratikoaren sinatzaileek Hitzarmenerako Mahaiaren osaketa eta hurrengo hilabeteetako planifikazioaren ardatzak onartu zituzten joan zen apirilaren 27an. Zapatuan Arantzazuko Santutegian egingo den batzar hori izango da Hitzarmenerako Mahaiak egiten duen lehena. Besteak beste, Hitzarmenerako Mahaiaren osaketa finkatu (sei alderdi, bi sindikatu, eta hiru herri mugimendutako ordezkariak izango dira), konpromisoak berretsi, plangintza zehaztu eta hau guztia ezagutaraziko dute.

Prozesuaren fede emailea den Alec Reidek parte hartuko du lan bilkuran.

Juan Martin Elexpuru da apirilaren 27an mahaiaren osaketan egon zerenetako bat.

DEBAGOIENEAN LABUR

Ikerlan ikerketa zentroak 14,9 milioi euroko sarrerak izan zituen 2004. urtean

Ikerlan zentroaren egiteko garrantzitsu bat da enpresen garapen teknologikoa bultzatzeko hartutako konpromisoa. Eremu horretan 109 proiektutan parte hartu du Ikerlanek. Lan horri esker, bederatzi patente eskari egin dizkiote etxetresna elektriko, garraio bertikal, energia eta telekomunikazioetako bezero enpresek.

Rebeka Ubera elgetarrak ordezkatuko du Aintzane Ezenarro Batzar Nagusietan

Orain arte Aralarreko batzarkide izan den Aintzane Ezenarroren ordezkoa Rebeka Ubera elgetarra izango da. Aintzane Ezenarrok Gasteizen legebiltzarkide kargua hartu duenez gero, ezin izango ditu bi karguak bateratu. Aralarrek oraingo astean erabaki du Ezenarroren ordezkoa izatea Elgetko zinegotzi Rebeka Ubera.

NEGOZIO IDEIAK SORTZEKO MINTEGIA

Norentzat: negozio ideiaren bat dutenentzat edo ideiarik eduki ezean, autoenplegu bidea jorratu nahi dutenentzat
Noiz: 2005eko maiatzaren 23tik 25era
Iraupena: 15 ordu.
Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara
Lekua: Arrasate (Debagoieneko Garapen Agentzia, Nafarroa Etorbidea 23)
Antolatzaileak: Debagoieneko Mankomunitatea eta Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko Udaletako Enplegu Zerbitzuak
Prezioa: Dohainik.

IZENEMATEAK
• Debagoieneko Mankomunitatea-Garapen Ekonomirako Agentzia.
Tel.: 943 79 30 90 (Jorge Blazquez).
• Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzua.
Tel.: 943 79 09 00 (Marga Garmendia)
• Bergarako Udaleko Enplegu Zerbitzua.
Tel.: 943 77 91 24 (Marije Unamuno)
• Oñatiko Udaleko Enplegu Zerbitzua.
Tel.: 943 03 77 00 (Jexux Mari Ugarte)

Plaza mugatuak!

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Nola ezarri Merkataritza Elektronikorako sistemak

Debagoiena
maiatzak 17
ARRASATE
Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Iraunkor)

Ordutegia: **18:00-20:00**

Erosteko eta saltzeko Internetek aukera asko ematen dizkizu. Negozio edo enpresa txikia baduzu, Merkataritza Elektronikorako sistemak nola aplika ditzakezun azalduko dizugu eta nola baliatu Internet zure produktua segurtasun eta konfiantza osoz saltzeko.

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:
Miramon Enpresa Digitala

Sustatzaileak:
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · euskadi · e-gipuzkoa · SPRI

Gutunak

Hiltegiaren gainean

Siadeco enpresaren informean agertzen diren lau aukeretatik, nire iritziz, hirugarrena da aukerarik onena. Han, enpresa bikain bat nola egin azaltzen da, hau da, enpresaren kapitala inplikatuta dauden sektore guztiek jarrita. Horrela, enpresa publiko moduan ez duen dinamismoa lortuko luke.

Adibidez, ez dakit jakingo duzuen, Bilboko hiltegian prezioak jaisten hasi direla; honek esan nahi du Hiltegia Bizirik Plataformak aurkezten dituen zenbakiak ez direla guztiz errealistak. Plataformaren txostena irakurtzea lotsagarria da, proposatzen dituen gauzen artean zalantza asko uzten direlako. Hiltegia Bizirik Plataformak badaki zalantza horien atzean zer dagoen eta zezenari adarretatik heldu beharrean, administrazioaren babesa proposatzen du.

Errealista izanda eta eskatzen duten hainbat gauza onartuta ere, zehaztu egin beharko litzateke datozen 25 urteetako galera zenbatekoa izango den.

Nire iritziz, Arrasateko Udalak bertako baserritarren hiltegiaren erabileraren eta Arrasateko biztanleek kontsumitzen dutenaren arabera ordaindu beharko luke, ez orain arte moduan biztanle kopura kontuan hartuta.

BIXENTE ETXEBARRIA
(EA-KO HAZIENDAKO
ZINEGOTZIA ARRASATEN)
Arrasate

Ze mendetan bizi gara?

Entzuna dut, inkisizio garaian inkisidoreek gure herria sorginengandik libratu zutela. Sorginek "magia beltza" egiten zuten eta gure herrira kalte guztiak beraien erruz etortzen ei ziren. Orokorrean, gure kultura (pertsona haiei esker oraindik mantentzen dena) sorginkeriatzat jo zen. Torturapean, elizaren oniritziarekin, salatuek ezarritako erruak onartzen zituzten. Erru horien zigorrak, garaiko gogorrenak ziren, bizirik zeudela sutara botatzen zituzten, adibidez. Herriak beraietaz esaten zena sinisten zuen edo bestela beste alde batera begiratzen zuen. Inkisizio garaian altxamenduak edo protestak gogor zapaltzen ziren.

Orain, bizi garen garai "demokratiko" hauetan, ideiak "zapalduta" ez dauden garai hauetan, ni, Gorka Aztiria, Espainiako Entzutegi Nazionaleko 5. gelaren agindupean, goizeko 02:00etan iratzarri eta atxilotu ninduten. Ostean, zorabiatu arte torturatu. Deklarazio bat egitera behartu naute. Berau beraien gustukoa ez zenez, eta kolpeek niregan espero zuten efektua izan ez zutenez, adiskidea ondoko gelan jarri zidaten. Haren uluekin ikaratuta, beraiek bere horretan jarraitzen zuten. Beraien esanetan antzerkia egiten nenbilen. Nik esan nien ez zela antzerkia izan. Beraiek barre egin eta jasotakoa ez zela ezer izan, eta alboko gelan beraiek idatzitakoa sinatuko nuela esan zidaten.

Zergatik nago kartzelan? Ni aldez aurretik epaitu naute. XXI. mendeko inkisidoreek (komunikabide eta politikari batzuek) kondenatu naute. Adierazten zaizkigun elkartasun hitz horietan guztietan sinistu nahi dut, nahiz eta niri ez zaizkidan heltzen. Zergatik uzten dituzte legez kanpo eta aldez aurretik epaitu, benetan laguntzen gaituzten politikari, komunikabide eta taldeak? Herriaren zati batek beste aldera begiratzen du, eta horrela egiten ez dutenak inkisidoreen mehatxupean bizi dira; zergatik ote? Hau al da demokrazia? Zeintzuk dira nire eskubideak?

Eskerrak eman nahi dizkizuet nire atxiloketa salatu eta nire senideei laguntza eskaini diezuen guztioi. Bereziki zuri Julen, hartu dituzunak "gure erruz" hartu dituzulako. Esker mila denoi.

GORKA AZTIRIA ETXEBARRIA
Soto del Realeko espetxea

Erakusketa aretoa

Atzo, osteguna, zuten inauguratzekoa Bergaran Aroztegi etxeko erakusketa aretoa. Poztekoa da hori. Poztekoa diot, ze Bergaran kultur ekipamenduen aldetik ez gabiltza oso ondo: Novedades zine aretoa itxita, Kultura- etxea desegoki bere eginkizunetarako, liburutegia txiki, musika entzun edo antzerkia ikusteko areto publiko ganorazkorik ez (pilotalekura joan behar izaten gara), Zabalotegiko aretoa negargarri…

Hala ere, iruditzen zait gehiegizkoa dela; izan ere, ez daukagu ganorazko areto publikorik zinea edo antzerkia ikusteko, musika entzuteko, hitzaldi bat egiteko, bideo-proiekzio bat egiteko… Baina, sekulako erakusketa aretoa daukagu margo edo eskultura lanak ikusteko. Neurrigabekeria?

Bestalde, esaten digute auditorioa egin behar digutela. Herriko artistek erakusketa aretoa behin eta berriro aldarrikatu duten moduan, musikariak ere aspaldi dabiltza kexaka. Eta, egingo dute sekulako auditorioa Seminarioan, orkestrek, musika bandek edo orfeoiek urtean bitan-edo erabil dezaten. Ondo, baina iruditu-ko zait gehiegikeria. Ez da hobeto eraikin bakarra egokitu eta erabiltzea kultura-ekitaldi askotarako? Uste dut gaur egungo kultura beharretara hobeto moldatzen direla, esaterako, Elgetako kafe antzokia bezalako erabilpen ugariko aretoak.

M. GARZIA
Bergara

Hemeroteka

Haimar, galoi gutxiagorekin

Atzo (maiatzak 8) irakurri nituen *Berria* egunkarian Haimar Zubeldia txirrindulari usurbildarraren adierazpenak. Adierazgarriak ziren, oso. Hedabideetatik jakin zuen aurten Giroa egin beharko zuela. Gainera, berak ez zuen Giroa egin nahi, Tourra baizik. Baina beste erremediorik ez , eta gaur ekingo dio Italiako Itzuliari.

Elkarrizketa irakurri ahala, gogora etorri zitzaizkidan iaz Horrillok eta Mayok *El País* egunkarian egindako adierazpen batzuk, Tourra hastear zela. Ermuko txirrindulariak azpimarratzen zuen Mayok beti ematen duela duen guztia, eta ez beste batzuek moduan, hiru urtez behin bakarrik saiatzen direnak, kontratua berritu behar dutenean. Orduan ez nuen zalantzarik Horrillok Haimar zuela gogoan.

Espainiako Itzulia iritsi aurretik ere, Mayok berak sekulakoak esan zituen, kokoteraino zegoela, ez zuela gogorik Vuelta egiteko, nahikoa eta gehiago egin zuela iaz, Duphiné eta beste lasterketa batzuk irabazita. Beste batzuk ere hor zebiltzala, majo kobratzen, baina potrojorran antza. Berriro, Haimarren itzala pasatu zen nire gogotik.

Haimarri errealitatea etorri zaio muturraren aurrera: urtero puntaren puntan dabiltzanek izan dezakete Tourra besterik ez prestatzeko pribilejioa.

JOXE ARANZABAL
www.goiena.net/blogak/faroa

Lehertu da

Xabier Lapitzek Radio Euskadin gidatzen duen *El Altavoz* irratsaioan, goizeko 9etako albistegiaren aurretik eta ostean, tertulia izaten da. Hiruzpalau pertsona ezagun eta jantzi lanegunetan aritzen dira berriketan, titularretara heldu diren albisteen aitzakian.

Hizlarien arteko tentsioa gorenera iritsi da gaur (maiatzak 6), nagusiki, nortasun kontuak medio.

Jarrera politiko eta sentsibilitate sozial desberdineko tertulia kideak pasatzen dira bertatik. Eta horrek, saioari nolabaiteko bizitasuna eta aniztasuna ematen diola uste dut nik.

Gaurko egunean, ostiraletan beraz, Rikardo Gatzagaetxeberria, Xose Manuel Barreiro, Carlos Coello eta Nekane Jurado aritzen dira tertulian.

Azken biak soka berekoak ez direla agerian gelditzen da ahoa zabaltzen hasten direnerako. Baina gaurkoan bien arteko kimika falta agerian gelditu da.

Carlos Coello oso jantzia da hitz egiten, ahotsez eta argudioz. Autore eta pertsonaia ospetsuen aipu pila bat erabiltzen du bere alokuzioetan. Zorrotza. Gustatzen ez zaiona agerian uzten duen horietarikoa. Harroa sarritan.

Baina esaldi berean bi filosofo, esaera zahar bat eta gertakizun bat sartzen baditu ere, esaldia ondo borobiltzen du, ez da argudioaren adarretan zintzilikatuta geratzen. Esan nahi dituenak amaierara eramaten ditu.

Nekane Jurado hizkera errazeko pertsona da. Ahots fina du eta arnasa hartzerakoan zarata egiten du. Politikagintzaren ikuspegi humanoa erakusten daki eta bere esperientzia eta ingurukoena erabiltzen du argudio eta lema gisa. Entzuten daki. Luzatu egiten da esaldiekin, baina apal-apal eta, sarritan etxetik kanpo jokatzen duela jakin arren, esan behar dituenak esaten dituenetarikoa da.

Gaur, bi estilo, bi jarduteko modu eta bi sentsibilitate kontrajarri horiek talka egin dute eta bataren zirikatze doktoa bestearen jardun lasaiaren etsai bilakatu dira.

Coellok, beti goitik behera aritzen denez, bigarrena sutu du. Juradok iritziak temati azaldu nahiak lehena asaldatu du. Azkenean, Nekane Juradok, eztabaiden atzean egoten den kimika eta nortasun kontrajarrien gaia atera du, ausart. Coellori zer gertatzen ote zaion galdetu dio, ia zergatik ez dion berba egiten uzten... Tentsioa handia izan da.

(...).

EDORTA ARANA
www.goiena.net/blogak/hamaika...

Iragartzeko erak

Tele5k dio Kataluniako Formula 1eko Sari Nagusia ikusleen %49k jarraitu zutela. Sekula izan diren marka guztiak apurtu ditu kateak. Hori oso errentagarria da iragarki gehiago sartzeko aukera dutelako eta iragarkien kotizazioa ere gorantz doalako. Baina nik galdetzen dudana zera da. Ikusleak Alonso edo Schumacher ikusteko irrikan badaude, zelan sartzen dituzte iragarki horiek karreraren erdian? Nik ezin izaten ditut jarraitu. (...).

Egia da momentu horietan izugarrizko jendetzak ikusten duela saio hori, baina zenbatek egiten die jaramon iragarkiei? Nik ez behintzat.

Nire ustez hori brute force marketing edo indarrez egindako marketinga da. Ez ditu kontuan hartzen ikuslearen (erosle potentzialaren) interesak eta, gainera, ez du kontuan hartzen zein den benetako eragina produktuaren salmentetan edo markaren eraikuntzan.

Marketingak, errentagarria izateko, hori baino finagoa izan behar du, eta marka bat eraikitzeko hori baino gehiago kontuan izan behar dituzte enpresek euren bezeroak.

FELIX GERENABARRENA
www.goiena.net/blogak/euskonomia

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Amaia Mundiñano, Itxaso Berezibar,

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Karmele Etxabe

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

San Isidro eguna ospatuko dute bihar, zapatua, ohiko azokarekin

San Isidro eguna domekan den arren, bihar, zapatua, ospatuko dute. Ekitaldi ugari egongo dira goiz osoan zehar. 09:00etatik 14:00etara, azoka izango dugu Herriko Plazan; ganadua eta artisau postu ugari ikusteko aukera izango dugu. 10:30ean, salda banatuko dute Trekutz elkartean; 11:00etan izango da meza nagusia. 12:00etan kalejira izango dugu txistulariekin, eta 12:30etik aurrera trikitilariekin.

Anelkarrek, berriz, Bidezko Merkataritzako produktuak salduko ditu, plazan bertan. /A.I.



EDU MENDIBIL

BERGARA

Astiazaran, Brechet eta Alberto, Deporren inaugurazioan

Jose Luis Astiazaran Realeko presidentea, Alberto Lopez eta Jeremie Brechet jokalariak, Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea edota Bergara KEko presidente kargua izan duten hainbat lagun elkartu ziren eguaztenean, Deportivo tabernaren inaugurazioan. Horrelakoetan gertatzen denez, Albertok eta Brechetek autografo mordoa sinatu behar izan zituzten. Astiazaranek oroigarria eman zion Iñaki San Jose BKEko presidenteari. Honek Bergarak eta Realak betidanik izan duten harreman ona azpimarratu zuen eta, era berean, tabernaren berritzea Agustin Arantzabalek Zaragozarekin fitxatu izanagatik egin ahal izan dela gogora ekarri zuen, Bergarak 100.000 euro inguru jaso baitzituen. Ondoren, Ollagorran afaldu zuten. /E.M.

ARAMAIO

Apurketak jasan dituzte azken asteotan San Martin Eskolan

Kezkatuta dabiltza azkenaldian Aramaion, apurketak jasan dituzte-eta. Hain zuzen ere, eskolako gimnasioko leihoetako kristalak apurtu dizkiete, kristal bereziak, gogorrak. Baita eskolapean dagoen parkeko bi kale-argi ere. 1.000 eurotik gorako apurketak dira.

Astelehenean ikusi zituzten azken erasoak eta alkatea eta Ertzaintza eskolan izan ziren, kalteak ikusten eta hartu beharreko neurriak erabakitzen. Gurasoen partaidetza ere eskatu dute, seme-alabekin berba egin dezaten. /U.M.

OÑATI

Egonaldiak, bidaiak eta beherapenak zozketatuko ditu Txanda elkarteak

Maiatzetik abendura bitartean talasoterapiara joateko bidaiak eta nekazalturismoetan egonaldiak zozketatuko ditu Txandak bezeroen artean.

Zozketa hauetan parte hartzeko Txanda elkarteak atera duen txartelarekin ordaindu behar dira erosketak. Epe honetan txartela erabiltzen duten guztien artean egingo dituzte zozketak. Maiatzeko zozketa ekainean egingo dute eta talasoterapiara joateko saria irabaziko du norbaitek. Hurrengo hilabeteetan egonaldiak zozketatuko dituzte nekazalturismoetan eta urteko azken bi hilabeteetan, talasoterapiara joateko bidaiak izango dira, berriro, sariak.

Maiatza bukatu bitartean, gainera, bost euroko 300 bale ere zozketatuko dituzte. Zozketa horiek erosketak ordaintzen diren momentuan egingo ditu makinak berak, eta egindako erosketan aplikatuko dute beherapena.

TXANDA TXARTELA

Dagoeneko 700 txartel baino gehiago banatu ditu Txandak herritarren artean. Oraindik ez daukanak, Txanda elkarteko edozein dendatan eskura dezake. Datuak betetzeko orri bat emango dio dendariak interesatuari eta honek dendan bertan entregatuko du bete ostean. Gero, Rural Kutxa banketxeak emango dio txartela bezeroari.

Gainera, txartela orain egiten duenak 50 puntu lortuko ditu. Puntuak gehitzen joango dira erosketekin batera, puntu bat bost euroko erosketa bakoitzarekin. /OIHANA ELORTZA

Zertzelada

Talasoterapiara joateko bidaiak eta egonaldiak nekazalturismoetan izango dira sariak; maiatzean beherapenak zozketatuko dituzte

ARETXABALETA

Kultura ekitaldiendako eraikina 2007rako egingo dute Herriko plazan

Kultura-etxea, gaztelekua, liburutegia, musika eskola eta erabilera anitzeko aretoa izango dituzte laster Aretxabaletan. Hala erabaki zuen udalbatzak osoko bilkuran, eta lehenbailehen hasi gura ditu lanak 2007rako bukatuta izateko.

Herriko plazan dagoen zinema zaharra bota eta bertan egingo dute eraikina. 2.847 metro koadro izango ditu, eta bost solairu. Sotoan eta beheko solairuan gaztelekua jarriko dute, eta 96 jarlekuko aretoa ere beheko solairuan egongo da. Lehenengo solairuan liburutegia, bigarrenean kultura-etxea eta hirugarrenean musika eskola egingo dituzte. 3.700.000 euroko aurrekontua du. /M.A.

M.A.

Zinema zaharra bota eta bertan egingo dute bost solairuko eraikina.

ELGETA

Ume eta gurasoendako jolasak gaur kiroldegiko kantxan

Gaur, barikua, 19:00etatik aurrera guraso eta umeendako jolasak egongo dira kiroldegiko kantxan.Gurasoek seme-alabekin jolastea izango da baldintza. Jaiaren helburua da konturatzea umeekin euskaraz jolasteak duen garrantziaz. Jolasen ostean, afari-merienda egongo da.

BEGIRALE IKASTAROA

Bestalde, Udalak antolatutako begirale ikastaroa ekainaren 4ra atzeratu dute. Beraz, hilaren amaierara arte zabalik dago izena emateko epea. /I.A.

ESKORIATZA

Bihar, zapatua, landareak banatuko dituzte Dendarien Jaian

Bihar, zapatua, jai berezia egingo dute herrian, Dendarien Jaia izenpean. 11:00etatik 19:00etara bitartean, herriko plazan musika jarriko dute, eta Usurbilgo Urtinea hazitegiko lagunek landare ugari eramango dute.

Astean herriko hainbat saltokitan txartelak banatu dizkiete erosleei. Hortaz, txartel horien truke landareak hartu ahal izango dituzte plazan.

Herriko 20 bat saltokik antolatu dute ekimena, eta horren helburua da bezeroen fideltasuna eskertzea eta herria girotzea. /I.B.

ARRASATE

Datorren urte hasieran estreinatuko dute kultura etxe berria

Kostata, baina badirudi bide ona hartu dutela kultura-etxe berriko lanek. Frantziskotarren lehengo komentuari atzematen zaio izango duen itxura berria. Udaleko Hirigintza Saileko teknikari-buruak egiaztatu digu dezente aurreratu dituztela lanok. Halaber, pentsatzen dutela datorren urte hasierarako bukatuta izatea kultura-etxe berria.

Liburutegia, erakusketa eta hitzaldi areto bana, informatika gela bat, ikasteko beste bat eta erabilera anitzeko hainbat gela izango ditu kultura-etxeak. /U.M.

LEINTZ GATZAGA

'Sorginak' aldarrikapenekin itzuli dira Zamoratik

Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Taldeak Zamoran egin du asteburua, eta hiriburua eta inguruak ezagutu dituzte. Horrekin batera, aspaldi egiten dabiltzan aldarrikapen baten berri eman diote GOIENKARIAri, gutun bidez.

AUTOBUS BAT ERE EZ

Gatzagako *sorginak* dagoeneko nekatu dira erratzekin hegan egiten, eta herritik autobus bakarra ere ez dela igarotzen salatu dute: "Eta bitartean, ibarrerako autobidea, AHT, tranbia...". /X.U.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a

Pruden Gartzia

EUSKALTZAINDIKO BIBLIOTEKA ZUZENDARIA

“Joan Perez Lazarragaren birraitona izan daiteke Cervantesen On Kixote”

Joan Perez Lazarragaren eskuizkribua agertu zenetik testua ikertzen ari da Pruden Gartzia oñatiarra, eta ikerketa horren emaiztekin liburu bat ateratzeko asmoa du. Egiptologian Tutankamonen hilobiaren aurkikuntzak nola, halako garrantzia ei du Lazarragaren eskuizkribuak euskal literaturaren historian. Cervantesek eta Larreako jauntxoak elkarren berri izan zutela ere jakin du Gartziak, egindako ikerketei esker.

OIHANA ELORTZA

Nola jakin duzu Lazarragak eta Cervantesek elkarren berri izan zutela?

Lazarragaren eskuizkribua Madrilen agertu zenetik testua ikertzen ari naiz. Orain arte makina bat ohar, kasualitate eta lotura nituen bilduta. Duela hiru hilabete inguru, berriz, hanka apurtu nuen eta etxean egon behar naizenez, lehen batutako oharrak ordenatu eta horiei tiraka hasi naiz. Azkenean Joan Perez Lazarragaren eta Miguel de Cervantesen artean lotura egon zela ikusi dut. Egia esan, sorpresa handia hartu dut hau jakitean. Oraindik ezin da frogatu elkar ezagutu zutela, baina bai elkarren berri bazutela.

Nola izan zuten elkarren berri?

Esteban Garibai arrasatearraren bitartez. Garibai dorrea eta Lazarragatarren etxea, biak daude Oñatiko Zañartu auzoan eta familia bi hauek oso hurbilekoak ziren. Uste dut Esteban Garibai eta Lazarraga senideak zirela, ondoan bizi izan zirela, lanbidez eta zaletasunez antzekoak zirela eta elkar ezagutzen zutela .

Bestalde, Esteban Garibai eta Miguel de Cervantes idazlea oso lagunak ziren, oso gertukoak. Hau, gainera, ez diot nik bakarrik, Pio Caro Barojak ere behin baino gehiagotan esan du.

Eta eskuizkribuan agertzen da harreman hori?

Eskuizkribu ia guztia euskaraz idatzita dago. Gaztelaniaz idatzitako zati batean, ordea, Lazarragak idazten du ehun urte lehenago Gasteizen gertatutako istorio bat. Kontatzen du nola bere birraitona zoratu egin zen eta armadura bat soinean zuela nola ibiltzen zen zaldi gainean lantza, ezkutu eta guzti oihuka, norbaitekin borroka egin nahian. Testu hori dagoen bezala irakurrita, Kixote datorkigu burura denoi.

Beraz, Lazarragaren oinordeko zoroa da Cervantesen Kixote?

Mila bide ezberdinetatik aztertu dute askok Cervantesek Kixote nondik atera zuen edo non eta norengan oinarritu zen. Cervantesek dio benetako izena Alonso Quijano zela eta gero aldatu zuela Don Quijotegatik. Batzuek uste dute asmakuntza literario bat zela, baina beste askok ikerketak egin dituzte, Gaztela Mantxan batez ere, ea izen hori zuen gizonik existitu zen edo ez jakiteko. Eta topatu dute, gainera, antzekotasunik duen nor edo nor.

Nik ere antzeko zerbait esaten dut: Gasteizen bazen gizon bat Lazarragaren izen bera zuena, Joan Perez Lazarraga, eta honek ere izugarrizko antza du Kixoterekin. Gainera, eskuizkribuan kontatzen duen istorio hau Cervantesen liburua baino lehenagokoa da.

Eta nola ezagutu zuen Miguel de Cervantesek Gasteizko istorio hori?

Publikatu gabe zegoen, beraz, ezin izan zuen irakurri. Eta berriro, Esteban Garibai agertzen da. Esteban Garibai Lazarragaren senidea zen, beraz, derrigor ezagutu behar zuen istorio hori. Gainera, antzeko anekdota eta bitxikeria ugari jasotzen zituen bere liburuetan; asko gustatzen zitzaion hori.

Eta honetaz gain, Cervantesek jende asko ezagutzen zuen Gasteizen.

Gasteiz eta Madril urruti egongo ziren ba XVI. mendean?

Egun baino gertuago. Euskaldunek *lobby* batek bezala funtzionatzen zuten Madrilen eta izugarrizko indarra zuten erregearen ondoan; gorteetako talderik indartsuena ziren euskaldunak. Adibidez, Oñatiko duketxeko semeak, Joan Perez Lazarragaren lehengusuak, kargu handia zuen gorteetan. Beraz, normala ere bada Larreako jauntxoa Madrilera joatea sarritan, bai lehengusua bisitatzera bai lana aurkitzera . Eskuizkribuan dio, esaterako, euskarazko poema horiek Madrilen idazten ari dela, 1567ko maiatzaren 30ean.

Cervantes bera ere, erregearen inguruko giroan ibiltzen zen Madrilen. Lazarragatarrak ere antzeko perfila dute eta kontuan izanda gorteetan euskaldun asko zeudela eta oso *lobby* indartsua osatzen zutela, ez da ezinezkoa Cervantesek eta Lazarragak elkar ezagutzea Madrilen.

Bestetik, gainera, XVI. mendean, herritarrak ez ziren inguruko mugetatik asko aldenduko, toki berean jaio, bizi eta hiltzen ziren gehienak. Jauntxoak eta dirudunak, ordea, denak zeuden Madrilera begira eta ahal zuten guztiak saiatzen ziren Madrilera joaten.

Eta nolako harremana zuten gorteetako euskaldunek erregearekin?

Euskaldunok Madrilekin borrokan egotea gure belaunaldietako kontua da. Duela 400 urte, ordea, euskaldun denak oso pozik zeuden erregearekin. Denak zeuden zain gorteetara joateko eta postu ona topatzeko. Gorteetako idazkariak, laguntzaileak eta baita negozio gizonak ere, denak ziren euskaldunak. Are gehiago, Madrileko gorteetara sartu eta euskaraz hitz egiten zuten bai atean zegoen zaindariak, bai goi

LAZARRAGA ETA CERVANTES

“Datu guztien arabera urte berean jaio ziren Joan Perez Lazarraga eta Miguel de Cervantes, eta elkar ezagutu zutela frogatuta ez egon arren, argi dago elkarren berri bazutela”

ESTEBAN GARIBAI

“Cervantesen oso laguna zen Esteban Garibai arrasatearra, Lazarragaren senidea zen eta Felipe II. erregearen kronista; giro berean ibiltzen ziren hirurak Madrilen”

LAZARRAGAREN ESKUIZKRIBUAREN GARRANTZIA

“XVI. mendean jauntxoak ere euskaraz bizi zirela erakusten digu, besteak beste, eskuizkribu honek; gaztelania negozioetarako erabiltzen zuten, guk orain ingelesa bezala”

LAZARRAGAREN BIRRAITONA ETA ON KIXOTE

“On Kixote baino lehen idatzi zuen Lazarragak bere birraitona zoratuta zegoela eta zaldi gainean ibiltzen zela lantza eta ezkutuarekin; Cervantesek ondo jakin zezakeen istorio hau”

ARGAZKI PRESS

karguko agintariaren idazkariak. Lepantoko guduan ere makina bat euskaldun egon ziren, eta gehienak ofizialak ziren, konfiantzakoak zirelako.

Cervantes eta Larreako jauntxoa urte berdinean jaiotzea ere kasualitatea da?

Beste kointzidientzia bat da hori. Nahiz eta ziur ez dakigun noiz jaio zen bata zein bestea, orain arteko datu guztiek diote urte berean jaio zirela: 1547an. Cervantesek beti zuen harremana Madrilen postu onak zituztenekin, eta Lazarragatarrak gorteetan kargu garrantzitsua zuten. Gainera, Cervantesek lagun asko ezagutzen zituen Gasteizen eta horietako batzuk Lazarragatarren tartekoak ziren, familia oso zabala baitzen Joan Perez Lazarragarena.

Esteban Garibai arrasatearra ere Madrilen ezagutu zuen Cervantesek?

Karrera handia egin zuen Esteban Garibaik. Lehendabizi Arrasateko alkate izan zen, eta nahiz eta orain askori arraroa iruditu erregeak Arrasate bisitatzea, Garibairen ametsa gorteetara joan eta han kargu on bat izatea zen. Madrilen zituen influentzia denak erabili zituen amets hori lortzeko eta azkenean Felipe II. erregearen kronista ofiziala izatera iritsi zen.

Bestetik, Garibairen emaztea, Luisa Montoya, arabarra zen eta Cervantesen lehengusua ote zen galdetzen dute batzuek. Argi dagoena da ezker-eskuin bizi zirela Garibaitarrak eta Miguel de Cervantes.

Zerk erakarri zaitu zu Perez de Lazarragaren eskuizkribu hau hain sakon ikertzen hasteko?

Egiptoren historiari buruz dakigun hiru laurdena Tutankamonen hilobiaren aurkikuntzari esker da. Lazarragaren eskuizkribua euskal kulturarendako haren parekoa da.

XVI. mendeko euskal literaturari buruz ez genekien ezer; pentsatzen genuen euskara zela baserritarren hizkuntza eta herriko jauntxoak berehala gaztelaniara pasatzen zirela, uste genuen idatziak eta horrelakoak gaztelaniaz egiten zituztela. Orain aldiz, ari gara ikusten uste hori erlatiboa dela eta Lazarragaren testuak erakusten du euskararen bizimodua normala zela XVI. mendean; euskara pobreen hizkuntza izan zen gero, baina XVI.ean herri guztiaren hizkuntza zen, pobre zein jauntxoena. Orduan gaztelania zen egun ingelesa den modukoa, negozioak egiteko behar zuten hizkuntza, baina euskaraz bizi ziren. Ingelesa askok dakiten arren, inork ez du ingelesez hitz egiten etxean, euskaraz baizik; duela 500 urte ere berdin, negozioetarako erabiltzen zuten gaztelania eta etxean eta eguneroko bizimoduan euskaraz hitz egiten zuten herritar guztiek.

Jakin da Oñatiko euskaran edo Arabakoan dagoen idatzita eskuizkribua?

Eskuizkribuak 500 orrialde inguru ditu eta gehienak euskaraz idatzita daude, zati batzuk gaztelaniaz dauden arren.

Gaur egun filologo asko daude Euskal Herrian eta horiek aztertuko dituzte testu guztiak goitik behera, eta horiek esango dute, nik baino hobeto, nongo euskaran dagoen idatzita.

Zein da zure iritzia?

Gauza bat dago argi niretako: Oñatik eta inguruko herriek askoz harreman estuagoa zuten Gasteizekin, Arabarekin, Gipuzkoarekin baino. Beraz, euskara ere nahiko antzekoa izango zen Gasteizen eta Oñatin. Filologoek jakingo dute horren barruan zein adarretakoa den testu hau, baina ez da harritzekoa oso antzekoak izatea. Lazarragaren familiak sei belaunaldi zeramatzan Larreako dorrean. Eta behin sei belaunaldi egon ostean, esan daiteke Arabakoak zirela, ezta? Orduan pentsatu daiteke Arabako euskaran dagoela idatzita baina berak izango zuen, akaso, Oñatikoarekin antza handiena.

Oñatitik Arabarako bidea zuzena izan da beti, ezta?

Adibidez, Larreatik Oñatira joateko mendia pasa eta Oñatiko Zañartu auzora zoaz zuzen, justu Lazarragatarren auzora.

EUSKALNTZAINDIA

“Oñatiko gazte gehienak gogoratuko dira oraindik nirekin”

Ze oroitzapen dituzu Oñatiko liburutegian egin zenituen urteez?

Bospasei urte egin nituen liburuzain Oñatiko liburutegian eta gazte asko etortzen ziren, gazte eta ume asko. Batzuk eskolako lanak egitera eta beste batzuk liburuak hartzera edo begiratzera. Beti zegoen jendea liburutegian.

Gogoratzen zara oraindik orduko gazteekin? Ezagutuko zenituzke?

Urte horietan Oñatiko gazte eta ume guztiak ezagutzen nituen, izen eta abizenez, gainera. Orain, ordea, ahaztu zaizkit gehienen izenak. Norbaiti buruz hitz egiten entzuten dudanean, adibidez, saiatzen naiz aurpegia jartzen, ia seguru bainago ezagutzen dudala, baina ez dut beti lortzen. Aurpegia ikusiz gero errazago akordatuko naiz, agian, baina despistatu samarra ere banaiz. Hala ere, ni ez naiz eurekin gogoratuko, baina seguru nago Oñatiko gazte gehienak gogoratuko direla nirekin.

Lasaiago egiten da lana Euskaltzaindiko liburutegian?

Giroa zeharo ezberdina da. Ikerketak egiten ari den jendea joaten da, batez ere, Euskaltzaindiko liburutegira. Erabiltzaile bakoitza bere lanean ari da eta ez du zerikusirik herriko liburutegi batean egoten den giroarekin.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a

Otala Zelaiko krosean, itzuli bakarra Urkuluko urtegiari

Lasterketa herrikoiaren aldeko apustua egin dute antolatzaileek

XABIER URTZELAI

Domekan egingo dute Otala Zelaiko krosa (11:00etan), eta joan den urtekoari jarraituz, aurten ere Otala Zelain bertan hasiko dute lasterketa, baita amaitu ere. Hala, erromeriarendako beste bizigarri bat izango dira bai nagusien eta baita gaztetxoen lasterketak ere.

Urte mordoan Urkuluko urtegiari bi itzuli emanda egin dute krosa. Joan den urtean bueltatu ziren, baina, sasoi batean egiten zuten krosera, Otala Zelain hasten zena, hain zuzen. Aretxabaletako kirol teknikari Asier Mujikak azaldu dizkigu zergatiak: "Batetik, lasterketa erromeria egiten duten lekuan hasi eta amaituz gero, giroa askoz ere hobea da. Joan den urtean, baina, seniorrendako bi itzuli jarri genituen, eta beteranoendako bat. Eta, kasu batzuetan, bi kategoria horietako lasterkariak batera iritsi ziren helmugara, eta publikoak ez zeukan argi nor zen lehenengo zihoana. Nahasketarik egon ez dadin, eta lasterketa amaiera ikusgarriago egiteko, aurten itzuli bakarreko krosa antolatu dugu".

ARETXAGAZETA

Otala Zelain hasiko dute krosa, 11:00etan.

LASTERKETA HERRIKOIAREN ALDE

Lasterketa ikusgarriagoa eta jaiei giroa emango diena egitearekin batera, antolatzaileak konturatu dira azken urteotan gero eta maila hobeagoko korrikalariek hartzen dutela esku, baina Otala Zelai krosa izaera herrikoia galtzen dabilela. Alde horretatik, ibilbidea motzagoa denez, aurreikustekoa da herritar gehiagok hartuko duela parte.

Gero eta korrikalari hobeek hartzen dute esku, baina ez dute gura izaera herrikoia galtzea

Sariak ez dira nolanahikoak, 1.200 euro baino gehiago banatuko dituzte-eta.

LEHENAGO, GAZTETXO MORDOA

Aurten ere neska-mutiko askok parte hartuko dute 10:00tan hasita izango diren lasterketetan. Joan den urtean, Leintz Eskola Kiroleko gaztetxo askok hartu zuten esku, eta aurten ere beste horrenbeste gertatuko da. Gainera, Otala Zelai inguruan egingo duten zirkuitu baten egingo dute korrika; animatzeko, hortaz, hobeto.

Kirolabur

DEBAGOIENA/PREFERENTE MAILAKO JARDUNALDIA

Bergarak bakarrik jokatuko du asteburuan etxean (zapatuan, 16:30ean) bosgarren postuan dagoen Zarautzen kontra. Mondra Zumarragara joango da (zapatuan, 16:30ean), erregional mailara jaisteko zorian dagoen Urolaren zelaira. Aretxabaletako taldeak Mutrikun jokatuko du (zapatuan, 17:00etan). Eta Aloña Mendik Trintxerpe izango du zain Errenterian (zapatuan, 17:00).

BERGARA/PILOTA FINALA, ASTELEHENEAN

Astelehenean jokatuko dituzte Bergara Hiria Txapelketako finalak (19:30ean, Udal pilotalekuan). 22 urtetik azpikoen mailan, Renobales eta Iraola, eta Apezetxea eta Diez de Ultzurrun izango dira nor baino nor. Nagusien mailan, Diazek eta Okiñenak Berasaluze eta Apraizen aurka jokatuko dute.

ARRASATE/ SASKIBALOI TXAPELKETA

Domekan, Euskal Herriko emakumezko saskibaloi jokalari onenak izango dira Iturripen nor baino nor. Emakumeen kirola bultzatzeko asmoarekin, Atletico San Sebastian, Getxo, Caja Vital Abaroa eta Belfast Irish Tavern taldeak lehiatuko dira Arrasaten. Norgehiagokak goiz eta arratsalde izango dira. Finala, 19:00etan.

ARRASATE/ATECE-BITHON

Garunean kalteren bat duten gaixoei laguntzeko Atece izeneko elkarteak kirol ekitaldi ikusgarria antolatu du astebururako. Besteak beste, karate eta judo erakusketak, body jam-eko klaseak, aerobithon-a, gimnasia erritmikoko erakusketa eta beste hainbat kirol ekitaldi egingo dituzte, Musakolako kiroldegian, bihar eta etzi.

ASPEPELOTA
Goi mailako pilota ikuskizuna

Eugi - Pascual / Del Rey - Lasa III
•
Urberuaga / Leiza
•
Etxaniz - Zubieta / Berraondo - Auxkin

- **Eguna:** igandea, maiatzaren 15a.
- **Ordua:** 17.00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.

aspepelota.com

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP. ELKARTEAREN

BATZAR OROKORRA

DEIALDIA

- Honen bidez, 2005eko maiatzaren 20an egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako dei egiten dut.
- Batzarra Arrasateko Monterron jauregiko aretoan izango da, 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.

GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2004ko maiatzaren 28ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2004ko kudeaketa txostena azaltzea.
4. Zaintza batzordeko kideen txostena irakurtzea.
5. 2004ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea
6. 2005eko kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea.
7. Borondatezko ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena.
8. Errektore Kontseiluko kide berriak onartzea.
9. Errektore Kontseilu berria onartzea eta lehendakari, lehendakariorde eta idazkari karguak aukeratzea estatutu sozialen 40.artikuluak dioena jarraituz.
10. Kooperatibako Kontseilu sozialaren aukeraketa.
11. Estatutuetako 40. artikuluaren aldaketa, bazkide laguntzaileek Errektore Kontseilurako hautatzen dituzten ordezkarien epealdia aldatzen duena.
12. Galderak eta eskaerak.

Oharrak: Errektore Kontseiluko kide berriak bi izango dira lan bazkideen aldetik eta hiru bazkide laguntzaileen aldetik. Lehenengoen kasuan aurrekoek aukeratuta izan zireneko epea amaitu dutelako eta bigarrenean Udal ordezkarien kontseiluak onartutako akordioak horrela eskatzen duelako.

Proposaturiko aldaketen testua eta proposamenaren arrazoiak biltzen dituen txostena Goienako egoitzan duzue, bertan aztertu nahi izanez gero. Jakin ezazue Kooperatibaren Legearen 74. artikuluaren arabera txosten hau etxean dohainik jasotzeko eskubidea duzuela. E-postaz bidaliko dizuegu. Hala ere, inork etxean jaso nahi izanez gero, dei dezala 943 79 21 00 telefono zenbakira eta egin eskaera Iratxeri.

Errektore Kontseiluko lehendakaria
Arrasaten, 2005eko maiatzaren 5ean.

Podiuma

Aitor Zabaleta |AUTO LASTERKARIA|

XABIER URTZELAI

Alemanian daukan motorraren zain egin du astea pilotu bergararrak, eta seguruenik, motor zaharrarekin egin beharko du, bihar, Gorlako Igoera (16:00etan). Aitor Erro eta Michel Iribarren izango ditu kontrario. Vilariño ez da egongo.

Oraindik ere motorraren zain?

Dagoeneko ez dut uste iritsiko denik. Atzo arratsaldean (eguaztena), oraindik, Alemanian zeukaten, saiakuntza-bankura sartu barik. Hori azkar egiten badute, eta motorra hegazkinez ekarri... Baina ez dut uste merezi duenik.

Eta motor zaharra?

Hortxe dago, eztul baten, baina hori da daukaguna. Michel Iribarren eta Aitor Erro nafarra izango ditut kontrario, eta neure motorra dagoen moduan egonda ere, abantaila bat daukat, Gorla ez dutela nik bezain ondo ezagutzen.

Joan den astean ez zinen Arraten izan, erraz irabazi zuen Ander Vilariñok.

Auto horrekin irabazten ez badute, ez dakit zer ekarri beharko duten! (barre). Europako txapelketan, barketena da kategoria garrantzitsuena, eta gero datoz turismoak. Eta FIA Kopan formulekin ibiltzen dira, eta horrelako bat dauka Vilariñok. Gu, berriz, bigarren edo hirugarren mailan gaude, eta auto horien kontra ez dago ezer egiterik.

Ibiltzen dira esaten, Zabaleta gora eta Zabaleta behera, pikea dagoela...Baina, Seat Panda baten eta M3 baten artean zelan egongo da ba pikea?

Osagarri guztiak ditu biharko lasterketak.

Bai. Berrogeita bi auto: hiru barketa, beste hiru formula, turismotan sekulako lehia izango da... Ezin da gehiago eskatu.

OIHANA ELORZA

Eguenean izan ginen Aitorrekin, eta oraindik Alemanian zegoen motor berria.

"Michel Iribarrenek eta Aitor Errok automobil lehiakorrak dituzte, baina ez dute Gorla nik bezain ondo ezagutzen. Hortxe daukat abantaila"

Gero eta jarraitzaile gehiago dituzte auto lasterketek. Joan den astean Montmelo euskaldunez beteta, uztailean World Serieak Bilbon...

Guretako oso pozgarria da hori, orain arte egunkarietan bi lerro azaltzen zirelako, eta orain jendeak badakielako *pole position*-a zer den. Ezagutzen dituzte Raikonnen, Alonso... Eta, hori guztia Alonsori esker izan da. 1 Formulara iristeko horrek egin zuena egin behar da. Formula 3000 kategorian, Silverstonen, lehorreko gurpilekin atera zen, eta euria ari zuen. Pistatik atera zen, berriz itzuli, eta *boxes*-etan gurpilak aldatu zizkioten. Azkeneko postuan zihoan, eta berak irabazi zuen lasterketa. Eta,hantxe zebilen Briatorek ikusi, eta etxera eraman zuen mutila.

Etxaniz eta Berraondo elkarren kontra, Bergarako jaietan

X.U.

Mendekostes jaiak direla-eta, Aspe pilota enpresak pilota jaialdi erakargarria antolatu du domekarako eta martitzenerako. Partidu erakargarrienetako bat izango da, binaka, Etxaniz bergararrak eta Berraondo antzuolarrak jokatuko dutena.

Jaietan giro ona behar du pilotalekuak, eta etxeko pilotariak ekartzea modukorik ez dago hori lortzeko. Etxanizek jarraitzaileak eramango ditu Udal pilotalekura, eta ez dira gutxiago izango Antzuolatik etorriko direnak. Bat baino gehiago, biharamun galantarekin. Domekan eta martitzenean egingo dute pilota jaialdia, baina Aspetik esan digute, martitzeneko norgehiagokak erabaki barik daudela, asteburuko partiduen arabera erabakiko dutela hori. Hauxe da domekako karteldegia: Urberuagak eta Leitzak jokatuko dute bigarren mailako Eskuz Banakako Txapelketako finalerdia. Ondoren izango dira eskuz binakako bi partidu. Hasteko, Eugik eta Pascualek Del Reyren eta Lasa III.aren kontra jokatuko dute. Eta, amaitzeko, Etxaniz eta Zubietak Berraondo eta Auxkin izango dituzte kontrario.

Parisko mahai-futbol txapelketan bistan geratu zen tartean euskaldunak zeudela

Orain dela bi aste mahai-futbol txapelketak egin zituzten ibarreko herrietako hainbat tabernatan, eta txapelketa horietako onenak Parisen izan dira asteburuan, Munduko Txapelketan. Egia da izen handiko torneoan ez zutela aparteko lanik egin, baina ondo baino hobeto aprobetxatu zuten asteburua. Txapelketan ezer egiterik ez, eta Paris ezagutzeko aprobetxatu zuten gehienek. Egunez eta gauez.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a

Kultura eta aisialdia

Maiatzaren 13tik 20ra

Asteburu magikoa

Ilusionismoa, umorea, musika, poesia, mentalismoa... denetariko magia, punta-puntako magoen eskutik Elgetako Magia Mostran

AZALA: IÑAKI ITURBE

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a

IKUSKIZUNAK/ **ESPALOIA ANTZOKIKO I. MAGIA MOSTRA**

Munduko mago onenak, gurean

EUSKAL HERRIAN INOIZ EZ BEZALA, NAZIOARTEAN EZAGUN ETA SARIDUN DIREN ZAZPI MAGO BATU DITU GOIBEKO ELKARTEAK

LEIRE KORTABARRIA

Luxuzko aukera dago asteburuan Elgetan: nazioarteko mago onenetariko batzuk egoera onenean, hau da, antzoki baten eta zuzenean, ikusteko aukera. Magia mota asko, umorea, poesia, lilura eta musika, hori da Espaloia antzokiko I. Magia Mostraren proposamena.

"Ez dakit nola ausartu zareten horrelako magoak ekartzen, Euskal Herrian horrelako aukerarik inoiz ez da izan eta". Horixe esan zien Txan magoak Elgetako Goibeko elkartekoei euren I. Magia Mostrako gonbidatuen berri izan zuenean. Eta hitzok ez daude neurriz kanpo; izan ere, luxuzkoa da mostra horretako kartela.

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean, Euskal Herriko eta Espainiako punta-puntako magoek emanaldi bana egingo dute. Horrez gain, Euskal Herrian magia arloa ondoen landuta duen taldeak, Arabako Ilusionisten Elkarteak, saioak egingo ditu. Ekitaldi bereziena biharkoa, zapatukoa, izango da, bost mago arituko direlako. "Gau magikoa izango da", aurreratzen du Txan magoak, aurkezleak.

Publiko orokorrarendako, izen ezagunena Anthony Blake mentalista izango da, baina mago guztiak dira punta-puntakoak. Eta, Txan magoak dioskun bezala, "onena da jendeak hainbat diziplinatako magoak ikusiko dituela eta norberak bere estiloa duela, ez duela beste inongo magorik imitatzen".

Espaloia antzokian eta, domekan, Elgetako plazan, adin guztietarako moduko ikuskizunak izango dira, baina, batik bat, helduendakoak. Horixe da eta magoek gustukoen dutena: helduendako aritzea. Horrela dioskute Jandrok eta Txanek. Batez ere bigarrenak, bere gustuko magia egiteko aukera izango du: "Helduek badakite gauza batzuk ezinezkoak direla; horregatik, ikusten dituztenean, txundituta geratzen dira. Umeak ez".

DATORREN URTEAN, GEHIAGO

Euskal Herri osoan gutxitan izaten dira Elgetakoa moduko hitzorduak. Magia saio gehienak Gasteizen egiten dira, han egiten diren magia kongresuetan-eta. Magoek onartzen dute magiaren kulturarik ez dagoela hemen, eta hori sortze aldera urratsa izan daiteke Elgetakoa; izan ere, datorren urteko Magia Mostra antolatzen hasiak dira dagoeneko Goibeko elkartekoak.

Arcadio

- Katalana
- Manipulazioa, animaliekin…
- Frantziako Nazioarteko Jaialdian lehenengo saria irabazi zuen. Hasi berrienen artean, "errebelazioa", Txanen esanetan.

Anthony Blake

- Asturiarra
- Mentalista da
- Estatuko mago ezagunenetariko bat da mundu osoan. Saioko zati garrantzitsu eta erakargarria da eszenaratzea.

Jandro

- Valentziarra
- Magia eta umorea, denendako
- Antzezpena, komikotasuna eta musika batzen ditu. Espainiako Magia Komiko Txapelduna da eta Europan arrakasta handia du.

Luis Boyano

- Galiziatik dator
- Mimika eta umorea lantzen ditu
- Kale-antzerkian eta zirkoan lan egindakoa da. Gorputz-espresioa, ahotsa, pantomima… erabiltzen ditu bere saioetan.

Morrison 'Magnifikoa'

- Port Aventurako magoa
- Umorea da bere arma
- Munduan emanaldi gehien egiten dituen magoa da: urtean 2.000 bat. Adin guztietako magia egiten du eta barrea eragiten daki.



Sergi Buka

- Bartzelonatik dator
- Poesia eta sentsibilitatea nagusi
- Donostiako magia kongresuan, 2002an, sari nagusia irabazi zuen. Itzal txinatarrak erabiltzen oso trebea dugu.

Txan

- Euskal Herriko ordezkari bakarra
- Aurkezle eta mago jardungo du
- Helduendako magia egingo du, "benetako magia", berak dioen bezala, zapatuko galan. Saioen arteko tarteetan jardungo du.

Egitaraua

- **Maiatzak 13, egubakoitza**
  22:30: Anthony Blake
  Sarrera: 15 euro.
- **Maiatzak 14,zapatua**
  22:30: Magia gala: Luis Boyano, Arkadio, Jandro eta Sergei Buka. Aurkezlea: Txan magoa.
  Sarrera: 12 euro.
- **Maiatzak 15, domeka**
  Eguerdian: globoflexia eta magia erakustaldiak Herriko plazan.
  19:30: I. Magia Mostraren itxiera gala Morrison *Magnifikoa* magoarekin.
  Sarrera: 10 euro.

Bonoak 30 euro; 25 euro Goibekoko bazkideendako.

JANDRO / ZAPATUKO MAGIA GALAN ARITUKO DA

"Magia eta barre asko izango da nire saioan"

Valentziatik Elgetara etorriko da Jandro, 28 urteko magoa, publikoa harritu eta dibertitu nahian. Eta ziur lortuko duela, bere magia Jandro bera bezain originala –Telekomunikazio Ingeniaritza ikasitakoa dugu– eta xarmangarria baldin bada.

Aktore, showman, mago… zelan definitzen duzu zure burua?

Inola ere ez. Ez zait gustatzen neure burua definitzea, definiezina naiz eta.

Orduan, defini iezaguzu Elgetan egingo duzun ikuskizuna.

Magia asko eta barre asko konbinatzen dituen ikuskizuna izango da, denok ikusteko modukoa. Hori da magiak duen onena: umeei eta helduei gustatzen zaiela. Egia esan, gehiago helduei umeei baino.

Zelan, bada?

Helduak ikuskizun batera doaz; umeek erronka bezala hartzen dute. Ume batzuek uste dute eurak engainatu guran zabiltzala.

Gasteizen emanaldiak egindakoa zara. Hemengo publikoa hotza ote da?

Bai zera! Principal antzokian egin dut saio bat; beste bat magoen kongresuan. Izugarria izan zen. Gasteizen, magiarekiko zaletasuna sortzen ari da, eta kongresuetan eta, sarrerak bi aste lehenago agortzen dira. Hala, publikoa alde duzu hasieratik. Baina ez dago ikuskizun puntualetara joateko ohiturarik.

Magian badago gauza berriak egiterik ala dena asmatuta dago?

Txisteratik untxia ateratzea, emakumea bitan zatituta… horiek legenden antzekoak dira, oso-oso jende gutxik ikusi ditu, baina horietaz berba egiten da. Hortaz, egiatan, jendeak ez daki zeintzuk diren trikimailu zaharrak edo berriak, magook bakarrik dakigu.

Ingeniaritzak magia egiten lagundu dizu…

… ez, magia egin behar izan dut ingeniaritza ikasteko (barrez).

Eta telebistan ere egin duzu magia.

Izugarri galtzen du magiak telebistan, jendeak uste duelako kamera-trukuak direla, baina balio du zaletasuna pizteko.

Pazkoak Bergaran

EGUBAKOITZA 13

► **20:00:** Jaien hasiera, etxafuegoak jaurtitzea eta BITORIANATXOREN JAITSIERA, San Martin plazan. Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan. Udal Musika Bandakoei, Elektrotuna taldekoek hartuko diete lekukoa. Iluntzean, Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA eta Bideberrin TXOSNEN IREKITZEA.

► **22:30:** KONTZERTUA Bideberrin Sharon Stoner, Imuntzo eta Beloki, Harrikada eta Deskontrol musika taldeekin.

► **23:00:** PIXPILA DISKO BUSAK festa-giroa ekarriko du San Martin plazara. Drag-Queenak, gogoak, DJak... Zatoz herriko plaza diskoteka nola bihurtzen den ikustera!

► **23:30:** DROGA ANALISIAK Gaztetxean Ailaket-en eskutik.

ZAPATUA 14

► **09:00:** XXV. Haur eta gazteen PLASTIKA-LEHIAKETA, Beart Bergarako Arte elkarteak antolatuta, Bolu kaleko egoitzan.

► **10:00:** DIANA Bolutik. Iosu eta Iokin soinu-joleak. Labegaraietatik, Kobok dultzaineroak. Oxirondotik, Udal Txistulari Banda. Dianaren ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera joango dira.

► **11:00:** ATLETISMOKO froga konbinatuak Agorrosingo kirol gunean.

► **11:30:** Herriko elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan, Iosu eta Iokin trikitilariek alaituta.

► **12:00:** Herri txikiteoa.

► **13:00:** Haur eta gazteen plastika-lehiaketako SARI BANAKETA, Beart Bergarako Arte elkartearen egoitzan (Bolu kalea 49).

► **13:30:** PRESO eta errefuxiatuen aldeko BAZKARIA Munibe plazan.

► **16:30:** Yarleku taldearen Numenak HAURRENTZAKO KALE ANTZERKIA San Martin Agirre plazan.

► **17:45:** Haurrendako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.

► **18:30:** Bergarako erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartsaren KALEJIRA, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Kobok Bergarako gaiteroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.

► **20:00:** MANIFESTAZIOA preso eta errefuxiatuen alde.

► **20:30:** MCKENSY'S Clan Band taldekoak Eskoziatik etorriko dira bisitan, propio Bergarako Pentekosteetara. San Martin plazan itxarongo dizuete.

► **22:30:** KONTZERTUA Bideberrin Kloakao, Vhäldemar, Black Sheeps eta Obligaciones taldeekin.

► **23:00:** DANTZA LATINOEN Pentekosteetako lehenengo lehiaketa San Martin plazan, eta ondoren DANTZALDIA Montesblancos taldearekin. Eman izena Bergarako Kultura-etxean maiatzaren 6a baino lehen, eta kanporatu dantzarako grina!

DOMEKA 15

► **08:00:** SOKAMUTURRA San Martin plazan, Elgoibarko dultzaineroek girotuta. Ondoren, ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.

► **10:00:** Euskadiko banakako XAKE TXAPELKETA Ipintza II institutuan.

► **10:00:** LXX. Pentekoste Saria TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpiko txirrindularientzat eta elite mailakoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari txapelketarako puntuagarria. Irteera San Lorentzotik.

► **11:00:** MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian. Udal korporazioarekin, eta Udal Musika Bandaren eta Txistulari Bandaren laguntzarekin.

► **12:00:** XXVIII. Euskadiko DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA, 15 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan, Abarka dantza elkarteak antolatuta. Kanporaketa saioa. Lehenengo 12 bikoteak sailkatuko dira arratsaldeko saiorako.

► **12:30:** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoloian.
Egitaraua:
• Cántame un pasodoble. C. Cano. Konponketak: A. Gz. Chirlaque
• La belle Héléne (Obertura). J. Offenbach
• Euskal Herria kantuz. A. Gz. Chirlaque
• Forrest Gump (Soinu banda). A. Silvestri
• Jericho (Fantasia). B. Appermont
Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

► **16:00:** Haur eta gaztetxoentzako ESKULAN TAILERRAK Xabier Maria Munibe plazan. Zatoz, eta itxuraldatuta irtengo duzu! Aurpegi margoketa eta ile apaindegia, tatuaia tailerra, argazki digitalaren gunea, globoflexia...

► **16:00:** XAKE AZKARREKO taldekako partiden txapelketa, Ipintza II institutuan.

► **17:00:** Profesionalen PILOTA PARTIDUAK Udal pilotalekuan.

► **17:30:** XXVIII. Euskadiko DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA, 15 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan. Udal Txistulari Bandak eta Trikitilariek lagunduko dute.

► **18:30:** HERRI TXIKITEOA AHT gelditzea aldarrikatuz.

► **19:30:** Katxi batxe de cuchina, publiko osoari, eta batez ere sukaldaritza gustuko dutenei, zuzendutako KALE ANTZERKIA Xabier Maria Munibe plazan.

► **22:30:** ROCK KONTZERTUA Bideberrin: Potemkin, A piko y pala, Extorsion eta Rotten Teenagers. Txosna batzordeak antolatuta.

► **23:00:** DANTZALDIA San Martin plazan, Tarantella taldearekin.

ASTELEHENA 17

► **08:00:** SOKAMUTURRA San Martin plazan eta Barrenkalean, Elgoibarko dultzaineroek eta Incansables txarangak animatuta. Sokamuturraren ondoren, HAMARRETAKOA San Martin plazan. Txorizo pintxoak San Joxepe elkartekoek prestatuta.
Ordu berean, KOADRILEN ELKARTZEA San Martin plazan, eta kalejira Xapre eta Zarra eta Josu eta Jokin trikitilariekin.

► **10:30:** PLATER TIROA Gorlako Irubiden.

► **10:30:** Mariachi Garibaldi taldearekin DOINU MEXIKARRAK Bergarako kaleetan. Animatu zaitez Espaloira eramango zaituen KANTU-JIRAN parte hartzera!

► **12:00:** Koadrilen aurkezpena eta JOKOEN HASIERA San Martin plazan. 16 urtetik 102 urte artekoek parte hartu dezakete. Jokoak: txerri harrapatzea, asto karrera (4 hankadun astoak antolatzaileek ekarriko dituzte. 2 hankadunak koadrilen kontu), sokatira, zaku karrera, txingak (25 kilo. 50 kilokoekin aritzeko esnezopa gehiago hartu beharra dago!).

► **12:30:** KONTZERTU MEXIKARRA Espaloian, Mariachi Garibaldi taldearekin.

► **14:30:** HERRI BAZKARIA: paella erraldoia. Bazkalostean, lokuluxkarako garaian, Incansables txarangakoek, eta Xapre eta Zarra eta Iosu eta Iokin trikitilariek lo ez hartzeko kantak joko dituzte. Txartelak salgai daude 8 eurotan Kortazarren, Pol-Polen eta San Joxepe elkartean. Bazkal ostean, EUSKAL KANTUEN saioa izango da.

► **17:00:** JOKOAK berriro, bergararrak sasoian gaudela erakusteko, musikaz lagunduta.

► **18:30:** Pazkoak 2005, MISS ETA MISTER JATOR lehiaketa. Saria: 150 euroko erosketa txartel bana Bedelkarreko dendetan gastatzeko.

► **18:30:** Kutsaduraren aurkako BALTSA JAITSIERA Bideberri inguruan.

► **19:00:** Koadrila irabazleari SARI BANAKETA. Saria: asteburu bateko egonaldia Nafarroako landa-turismoko etxe batean.

► **19:00:** BERGARA HIRIA pilota txapelketako finalak Bergarako Udal pilotalekuan.

► **19:30:** KALEJIRA Xapre eta Zarra eta Iosu eta Iokin trikitilariekin. Nekatzen direnean Incansables txarangakoek hartuko diete erreleboa, hauek ez dira nekatzen-eta.

► **22:30:** KONTZERTUA Bideberrin Sagarroi, Holy Sheep, Aby Kem eta Skunk taldeekin.

► **23:00:** ERROMERIA San Martin plazan Tapia eta Leturia taldearekin eta Iokin Otamendi dantzariarekin.

► **23:00:** CAMP DANTZALDIA Espoloian, Nueva Alaska taldearekin.

► **03:00:** DJ BULL eta jokoak Txosnetan.

GOIENKARIA

Dantza Sueltoko Euskadiko Txapelketa jokatuko da domekan San Martin plazan.

MARTITZENA 18

► **08:00:** SOKAMUTURRA San Martin plazan eta Barrenkalen, Elgoibarko dultzaineroen eta Incansables txarangaren animazioarekin.

► **08:00:** TXORIZO EGOSIA Txosnetan.

► **10:00:** DULTZAINEROEN KALEJIRA.

► **11:00-14:00:** Pentekosteetako kartel-lehiaketara aurkeztutako KARTELAK ERAKUSGAI izango dira, Udaletxeko arkupeetan.

► **11:30-13:30:** HERRI TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira.

► **11:30-13:30:** Haurrendako JOLASPARKEA Ipintza II-ko patioan. Gaztelu puzgarriak, kars-ak,... izango dira.

► **12:30:** HERRI-KIROLEN ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Ernesto Ezpeleta Bihurri, Jose Inazio Flores, Juan Joxe Unanue Goenatxo II.a eta Ana Berasategi. Aizkoran, harri jasotzen, txinga eramaten, trontzan, lastoa altxatzen... arituko dira. Aurkezle lanetan: Gabixola.

► **16:00:** UMEENDAKO JOLASAK San martin plazan: pottokak, zezentxoak...

► **17:00:** Profesionalen PILOTA PARTIDUAK Udal pilotalekuan.

► **17:00-20:00:** HERRI TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira.

► **17:00-20:00:** Haurrendako JOLAS PARKEA Ipintza II-ko patioan. Jolas parkea ixterakoan, Incansables txarangaren laguntzarekin, denok San Martin plazara kalejiran.

► **20:15:** GAZTETXOENDAKO KONTZERTUA Betizu taldearekin San Martin plazan. Mugitu gerri hori!

► **21:00:** SAGARDOTEGIA Txosnetan.

► **21:30-24:00:** EUSKAL KARAOKE ETA DJ FESTA San Martin plazan, Txatxilipurdi taldearekin.

► **22:00:** ROCK KONTZERTUA BIDEBERRIN: Txinaski, Middle Finger eta Azkaiter pelox. Txosna batzordeak antolatuta.

► **24:00:** BITORIANATXOREN IGOERA eta agurra. Pentekoste jaien amaiera San Martin plazan Incansables txarangaren laguntzarekin.

Maiatzak 13-20

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MATRIKULAK

ARRASATE

► **Bedoñabe haurreskolan** zabalik dago 2005-2006 ikasturterako matrikulazio epea hilaren 18ra arte. Argibideak, 943 79 76 86 telefonora deituta.

ELGETA

► **Haurreskolan** matrikula egiteko epea zabalik dago maiatzaren 18ra bitartean. Eskolan bertan jaso daitezke izena emateko orriak. Eskola bisitatzeko aukera dute interesa duten aita-amek. Argibideetarako, jo eskolara edo deitu 675 70 70 15 telefono zenbakira.

OÑATI

► **Haurreskolak** zabaldu du matrikulazio epea 2004 eta 2005. urteetan jaio diren umeendako. Hilaren 18ra arte dago aukera. Egoitza ikusten uzten dute. Argibideak, 943 71 64 05 telefonoan.

MUSIKA

ARRASATE

► **Dolce Vita eta Ozen** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Zigarrolan, 23:00etan.

► **Pedro Suite (Eleven room) eta Haitz (Meataka!)** disko-jartzaileen emanaldia izango da bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 03:00etan. Sarrera, doan.

ESKORIATZA

► **Jim TNT (Arrasate) eta Azkaiter Pelox (Bergara)** bakarlarien emanaldia egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

OÑATI

► **Azkaiter Pelox** bakarlariak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Eteon, 15:30ean.

► **Subversion X eta Nok** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean. Punk estiloko kontzertua izango da.

► **Ganbara abesbatzak** emanaldia egingo du etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean, 27. Musikegunak jaialdiaren barne. Schütz, Purcell, Durante, Zelenka eta Vivaldiren pieza bana jokatuko dute.

IKASTAROAK

BERGARA

► **Windows eta Word** ikastaroa emango du Udal Enplegu Sailak maiatzaren 23tik ekainaren 24ra bitartean. Izenematea zabalik dago eguena arte, hilak 19, sail horretan, 09:00-13:00.

► **Lore-arte** ikastaroa antolatu du Bergarako Emakume Elkarteak maiatzaren 24tik 26ra bitartean, 15:00-16:30 ordutegian. 12 euro da. Izena emateko, jo euren egoitzara (Barrenkalea, 31) edo deitu 943 76 07 95 telefonora astelehen eta eguaztenetan, 15:00-16:30 edo martitzen eta eguenetan, 09:00-12:00. Beste zenbaki bat da 625 70 78 92.

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA

► **Euskararen Astea** antolatu du Loramendi euskara elkarteak, hilaren 21eko Euskararen Egunerako giroa berotzeko. Honako ekitaldiak antolatu dituzte: martitzenean, hilak 17, euskalkiaren gaineko hitzaldia Badihardugurekin, 19:00etan; eguaztenean, 18, euskararen kalitatearen gaineko berbaldia Andoni Egaña eta Joxerra Gartziarekin; eguenean, hilak 19, antzerkia; eta egubakoitzean, 20, mahaiingurua: Aretxabaletako Udalak, EHEk, Emunek eta Goiena Komunikazio Kooperatibak euskararen etorkizunaren inguruan egingo dute berba. 19:00etan izango da hori. Ekitaldi horiek guztiak udaletxe zaharrean izango dira.

DEBAGOIENA

► **Debagoieneko I. Trikiti Eguna** ospatuko dute bihar, zapatua, Arrasaten. 11:00etan batuko dira ibarreko trikitilariak; gero, kalejira egingo dute eta, eguerdian, jaialdia Herriko plazan. 14:30ean, bazkaria izango dute. Azkenik, 18:00etan, Ene Bada! taldeak emanaldia egingo du. Arrasateko Trikitixa Eskolak antolatu du jaialdia, eta Debagoieneko trikiti eskola gehienek parte hartuko dute.

► **Agifes elkarteak jaialdia** deitu du hilaren 21erako Eibarren, eta Debagoienetik autobusa antolatu dute: Arrasaten, Garibaiko geltokian, 12:00etan, eta Bergaran, Torrekuan, 12:30ean. Eibarko udalarekin ekitaldia egingo dute 13:00etan, eta bazkaria Arraten 14:00etan. Izena emateko azken eguna hilaren 16a da, 943 47 43 37 zenbakian.

OÑATI

► **San Isidro eguna** ospatzeko, Larraina auzoko azoka egingo dute bihar, zapatua, egun osoan. Goizetik, auzoko ganadua, lanabesak eta baserriko produktuak erakutsiko dituzte. Sagardo eta txorizo jana eta trikitia ere izango dira goiza girotzeko.

DEIAK

ARRASATE

► **EHNA** tramitatuko dute gaur, egubakoitza, Monterronen, 17:00-20:00. Horretarako, hiru argazki, erroldako agiria eta 15 euro behar dira.

► **Etxerat** taldeko kideak Zigorrolako hostal aurrean egongo dira bihar, zapatua, 12:30-14:00. Etxerateko kide egiteko aukera emango dute.

► ***Komunikazio bide egokiak familian*** izeneko hitzaldia egingo dute martitzenean, hilak 17, Santa Teresa gunean, 18:00etan. Arizmendiko Guraso Eskolak antolatu du Haur Hezkuntzako aita-amendako.

► ***Nola ezarri merkataritza elektronikorako sistemak*** delako hitzaldia egingo du Miramon Enpresa Digitalak martitzenean, hilak 17, eskola politeknikoan, 18:00etan.

► ***Etxeko langileen eskubideak eta etorkinen egoera berezia*** delako hitzaldia egingo dute Isabel Otxoak eta Oscar Velliscak eguaztenean, hilak 18, udaletxean, 19:00etan, Emakume Sailak antolatuta.

ULMA
ULMA C y E, Koop. Elk.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
D E I A

Eguna: 2005eko maiatzaren 20a
Ordua: 12:15ean lehen deialdia eta 12:30ean bigarrena
Tokia: KURSAAL Elkarguneko Auditorioa - Donostia

GAI ZERRENDA
1. AURREKO AKTAK ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
2. 2004KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2005EKO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2004KO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA
5. SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA
6. HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEKO FONDOEN (HKS.F) ERABILERA
7. EKONOMIA ARAUBIDEKO ESTATUTU-XEDAPENAK
8. ORDAINKETA SISTEMA BERRIA
9. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIAK
10. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
12. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
13. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
14. GALDERAK ETA ESKAERAK

Oñati, 2005eko maiatza

OHARRA: Kontabilitate Liburuak eta Kooperatibako Barne Araudiaren artikuluen aldaketei buruzko informazioa bazkide guztien eskura daudela jakinarazten da.

► ERAKUSKETAK

BERGARA HIRIA ARGAZKI LEHIAKETAKO LANEN ERAKUSKETA

Bergara Hiria lehiaketako 21. aldiak baditu irabazleak, eta lanekin erakusketa muntatu du antolatzaileak, Pol-Pol Argazki Taldeak. Bergaran geratu dira lau sari, herriko onenaren biak kontuan hartu gabe. Lehenengo, bigarren eta hirugarren saridunak hauek izan dira: zuri-beltzean, *Simba* (Javier P. Fernández, Berango), *Zaldiak* (Benito Cantero, Bergara) eta *Salto en Cross de Lasarte* (Francisco Fernández, Donostia); Bergarako onena, *Casero y Caserío*, (Juan Antonio Untzurruntzaga). Koloretan, hauek: *Decadencia industrial* (irudian; Jose Agustin Gurrutxaga, Bergara), *Tres desguazando* (Juan Antonio Untzurruntzaga, Bergara) eta *Urbia* (Benito Cantero, Bergara). Herriko onena *Soroa II.* lanak irabazi du (Jorge Murgiondo).

Non: Bergarako kultura-etxean. **Noiz:** hilaren 22ra arte. **Ordutegia:** Astegunak: 18:00-21:00; zapatuak: 12:00-14:00.

ESKORIATZA

► **Herriko merkatariek** loreen eguna ospatuko dute bihar, zapatua. Bezeroei txartel bat oparituko diete, eta landare bat eskatu ahal izango dute horren truke. Herriko plazan landare postu bat egongo da horretarako. Musika ipiniko dute, eta tabernek aperitiboak emango dituzte.

► **Umeen danborrada** antolatu gura duten aita-amekin batzartuko da Udaleko Kultura Saila eguenean, hilak 19, kultura-etxean, 18:30ean.

OÑATI

► **Odol-ateratzea** egingo dute gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolan, 18:00etan.

► **Haragi, fruta eta barazkien** gaineko bi hitzaldi izango dira gaur, egubakoitza, Larrain-Gain elkartean, 19:00etan, elkarteak berak antolatuta.

► ***Denbora librea familian: jolasa, telebista… konpartitzeko guneak*** izeneko berbaldia egingo du Eraberri taldeak hilaren 17an, martitzena, Elkar Heziren Santa Eskolastika egoitzan, 19:00etan.

► **Iraunkortasun Foroak** batzar irekia deitu du martitzenean, hilak 17, kultura-etxean, 19:00etan. Herriaren bizi kalitatea hobetzeko taldea da. Batzarrera edozein joan daiteke.

► **Ipuinen garrantziaz** berbaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak hilaren 19an, eguena, haur liburutegian. Guraso eta hezitzaileendako hitzaldia da. Joateko, izena eman behar da 943 71 61 11 zenbakian.

ANTZERKIA

ARETXABALETA

► ***Euskara Senzilloaren Manifestua*** antzezlana egingo du Bikoteatroa taldeak eguenean, hilak 19, udaletxe zaharrean, 21:00etan, Euskararen Astearen barne. Loramendi elkarteak antolatu du.

ESKORIATZA

► **Peio Añorgak** ipuinak kontatuko dizkie umeei hilaren 19an, eguena, liburutegian, 18:00etan.

IKUSKIZUNAK

ARRASATE

► ***Cruce de caminos*** proiekzioa emango dute gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Un toque de canela
Egubakoitza: 22:30.

¿Quién engañó a Roger Rabbit?
Domeka: 17:00.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Entre copas
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Robots
Domeka: 17:00.

El silencio del agua (J.B.A.)
Eguena: 20:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Imagining Argentina
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

El penalti más largo del mundo
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

El reino de los cielos
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Millones
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Sahara
17:30, 22:30.

XXX 2 - Estado de emergencia
17:00.

La maldición
22:30.

Frágil
17:00, 19:45, 22:30.

El reino de los cielos
17:00, 19:45, 22:30.

Más allá de la alambrada
20:00.

El gran golpe
17:30, 20:00, 22:30.

Bodas y prejuicios
19:45, 22:30.

Mr. Batignole
17:30, 20:00.

Tapas
17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

XXX 2 - Estado de emergencia
17:30, 20:15, 22:45.

Un canguro superduro
17:30.

Frágil
17:15, 20:00, 22:30.

In my country
20:15, 22:45.

Es más fácil para un camello… (J.B.A.)
17:15, 20:00, 22:30.

El reino de los cielos
17:10, 19:55, 22:45.

Los porfiados
17:30, 20:15, 22:45.

Hierro 3
17:15, 20:00, 22:30.

Million dollar baby
17:15, 20:00, 22:30.

La casa de las dagas voladoras
17:20, 19:50, 22:35.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Hormigas en la boca
20:00.

Hermanas enfadadas
17:30, 22:30.

Millones
17:30, 20:00.

Arsene Lupin
17:30, 20:00, 22:30.

La última primavera
17:30, 20:00, 22:30.

Las tragedias de Nina (J.B.A.)
17:30, 20:00, 22:30.

Reinas
17:30, 20:00, 22:30.

Memoria del saqueo
17:30, 20:00, 22:30.

Heroína
20:00.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

El reino de los cielos
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Justa venganza
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Robots
16:00, 18:00.

El penalti más largo del mundo
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

XXX 2 - Estado de emergencia
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

In good company
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Los chicos del coro
16:00, 18:15, 20:20, 22:30, 01:00.

Un canguro superduro
16:00, 18:00.

Be cool
20:00, 22:30, 01:00.

La maldición
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Habana blues
20:00, 22:30, 01:00.
Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Tapas
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Justa venganza
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

La intérprete
12:15, 16:30, 19:00, 21:45, 00:25.

El reino de los cielos
12:15, 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

Million dollar baby
20:45, 00:00.

Be cool
19:35, 22:05, 00:35.

El gran golpe
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Heffalump
12:15, 16:20, 17:50.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Bob esponja
12:15, 16:05, 17:50.

Un canguro superduro
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

In good company
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Saw
12:15, 16:25, 18:30, 20:35, 22:40, 00:50.

La maldición
12:15, 16:45, 18:45.

Hotel Rwanda
19:20, 21:50, 00:20.

Robots
12:15, 16:00, 18:00.

The ring 2
20:00, 22:10, 00:20.

Reinas
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La intérprete
12:15, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

Sahara
12:00, 17:10, 19:40, 22:10, 00:45.

El gran golpe
12:10, 16:00, 18:00, 20:00, 22:05, 00:30.

Robots
12:10, 16:15, 18:10.

El reino de los cielos
12:00, 16:10, 19:05, 22:05, 01:00.

Tapas
12:00, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Un canguro superduro
12:00, 16:15, 18:15, 20:15.

Million dollar baby
22:30, 01:00.

A tres golpes de la fama
12:05, 16:00, 18:10, 20:20.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:00, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Heroína
12:20, 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 01:00.

Be cool
22:20, 00:45.

The ring 2
22:10, 00:30.

Heffalump
12:20, 16:30.

Cosas que hacer antes de los 30
12:15, 16:00, 18:00, 20:10.

Reinas
20:05, 22:15, 00:30.

La maldición
18:15, 20:20, 22:30, 00:45.
Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Entre copas: ●●●● / ***Million dollar baby:*** ●●●● / ***La intérprete:*** ●●● / ***La casa de las dagas voladoras:*** ●●● / ***Reinas:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

EL REINO DE LOS CIELOS

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Ridley Scott.
AKTOREAK: Orlando Bloom, Eva Green, Liam Neeson.

Zinemak azken bolada honetan (*Troya, Alejandro Magno*) historiara eta antzinako kondaira epikoetara hurbiltzea erabaki du. Orain, Ridley Scott-ek, *El reino de los cielos*-en, Gurutzadetan kokatutako istorio bat kontatzen digu.

Halako ekoizpen erraldoiek, ahalik eta ikusgarrien izan nahian, aurrekontu eta baliabide izugarriak eskatzen dituzte: jantziak, efektu bereziak, ekintza eta aktore piloa izaten dira. Ikuskizuna eta sakontasuna bateratu nahi dituzte, baina hori ez da lan erraza. Pertsonaia ugari agertzen dira, gauza asko kontatu nahi dira eta gainera, ikusleen arreta mantentzeko, ekintzak eta borrokek leku garrantzitsu bat izan behar dute. Jakin behar da pertsonaia bakoitzaren eta garai historikoaren ezaugarrien artean oreka bat sortzen. Horretarako, Ridley Scott-ek pertsonaia nagusi bat hartzen du, Orlando Bloom-ek interpretatzen duen gaztea, hain zuzen ere, eta hau, baldintza berezi batzuek bultzatuta, zaldun izendatuko dute. Hortik aurrera, filmak hark espirituz benetako zalduna izateko jasan beharko duen prozesua erakusten du. Bidean kristauen eta musulmanen arteko gerrekin eta ber-



dintasun-desberdintasun kulturalekin topo egingo du. Eta horrela kristau eta musulmanen barnean dauden talde eta portaera desberdinak ikusiko ditugu.

Scott-ek, hutsune batzuekin bada ere, nahiko ondo batzen ditu istorio indibiduala eta kolektiboa. Aipatutako hutsunea filmaren iraupenak behartua izan daiteke: bere iraupena bi ordu baino gehiagokoa da, eta denbora horretan ezin dira sakon landu pertsonaien artean sortzen diren hainbat harreman: gauza batzuk azkarregi azalduta daude, harreman batzuk azalekoak dira eta ez dute behar zuten pisua lortzen.

El reino de los cielos-en beste akats batzuk Ridley Scott-en zinema egiteko eran daude: eszena batzuetan gauzak gehiegi nabarmendu nahi ditu, momentu politegiak sortu nahi ditu eta, horrela, adibidez, erregea hiltzen den eszenan musika gehiegizkoa eta ia-ia barregarria da. Dena den, aipatutako denbora eta estilo arazo guztiekin Scott-ek nahiko ekoizpen ikusgarri eta interesgarria lortzen du.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa erdialdean 180 m².
• Martoko 85 m². Eguzkitsua.
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Erdialdea 50 m². Berritzeko.
• San Pedro 110 m². Berritzeko.
• Bolu 90 m². Garajea.
• Matxiategi 75 m². Eguzkitsua.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza berri.
• 55 m². Ondo.
• 88 m². Garajea. Oso ondo.
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.
LOKALAK ETA GARAJEAK
Salgai eta errentan.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40
ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara
•Duplexa, erdialdean 116 m².
•Masterreka 69m². Oso ondo dago.
•Martoko 60 m². Berritzeko.
•Elorregi 64 m². Berritzeko.
•Zubiaurre 45 m². Erdi berritua.
•Duplexa, erdialdean 153 m².
•Aranerreka 82 m². Garajea.
•San Pedro 110 m². Berritzeko.
•Txaleta 300 m². Berria.
ANTZUOLA:
•Bustinzuri 88 m². Berria.
•11 etxebizitza berri.
OÑATI:
•Erdialdea 83 m².
SORALUZE:
•Ezozi 83 m². Ondo dago.
BASERRIAK
•Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com*

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO. 647 05 42 75

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETARAKO. 677 45 23 31

ANTZUOLA
JARDUNEAN DAGOEN ARGAZKI DENDA ETA BITXITEGIA, ALOKAGAI EDO SALGAI. 943 78 70 66 635 75 72 71

if in faradis
Arrasateko In faradis lurrindegian behar da
SALTZAILEA
Kosmetikan eta edertasunean interesatuta dagoen pertsona bat behar dugu arratsaldez lan egiteko.
Lehentasuna ematen diogu bezeroari , taldean lan egiteari eta gure saltzaileen prestakuntzari.
Interesatuak etorri
Olarte kaleko 10-12. zenbakian dagoen dendara zure curriculumarekin, argazki batekin eta kontakturako telefono batekin,.
Edo deitu 320 267 754 telefonora eta galdetu Virginiarengatik.
www.infaradis.com

ANGIOZAR
ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

BERGARA
DEPORTIBO TABERNAN SUKALDARIA ETA ZERBITZARIAK BEHAR DIRA. 629 26 88 51

ARETXABALETA
ESPERIENTZIADUN ZERBITZARIA BEHAR DA JATETXEAN LAN EGITEKO. 679 45 57 75

BERGARA
ASEGINOLAZA TAILERRAK AUTOEN MARGOLARIA BEHAR DU. 943 76 12 50

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Angiozar. Baserria salgai. 1.086 m². 33.000 m²-ko lursaila. Deitu 19:00etatik aurrera. 943 76 55 86.

Antzuola. Bi logela, egongela, trastelekua. Gasa eta berogailua kanalizatuta ditu. Sartzeko prest. 169.000 euro. 627 21 87 49.

Arrasate. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Bi terraza. Erguin auzoan dago. 615 75 04 72.

Bergara. Berritua. 89 m². Terraza eta bi logela. 679 81 08 18.

Bergara. etxebizitza berritua salgai Koldo Elizalden. 82m². 3 logela, trastelekua eta igogailua. 699 06 31 08.

Bergara. Ibargarai kalean etxebizitza salgai. 109 m². Kanpora begira. 667 73 11 63.

Bergara. Ibarra kalean. 58 m². Bi logela. Leiho guztiek kanpora ematen dute. Guztiz berritua. 943 76 11 58.

Bergara. Osintxun. Garajea, ganbara, sukaldea jantzita, hiru logela, egongela eta bainugela. 675 70 53 66.

Elgeta. Bi logela, sukaldea, bainugela, egongela eta ganbara ditu. Igogailua ere badu. 946 81 71 97 edo 645 71 76 25.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta ganbara. 687 04 63 82.

Eskoriatza. Erdian. Berria. 70 m². Bi logela, bainugela, egongela. Erdi jantzita. Igogailua eta garaje itxia ere baditu. 627 42 63 12.

Merida. 60 m²-ko etxebizitza salgai. Berritua eta jantzia. 51.000 euro (8.500.000 pezeta). 924 31 84 13.

Oñati. 95 m². Hiru logela, egongela eta ganbara. Berrituta dago. 943 78 07 84 edo 635 75 62 02.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Hiru logela eta bi bainugela. 635 73 27 74.

Benidorm. Apartamentua alokairuan. Levanteko hondartzan. Igerilekua eta garaje plazarekin. 652 75 91 72 edo 945 21 34 70.

Bergara. Etxebizitza errentan ematen da. Kanpoalde eguzkitsua dauka, garajea aukeran. Burdinaten. 943 76 54 98.

Calpe. Apartamentua emango nuke errentan. Hondartzatik gertu. Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta terraza. 655 74 57 97.

Cambrils. Apartamentua errentan ematen dut, itsasotik gertu-gertu. Igerilekua du. 610 79 47 29.

Capreton (Landak). Etxea errentane emango nuke uztailean. Urbanizazio pribatuan dago. Igerilekuarekin. 627 76 08 26.

Conil (Cadiz). Batelen hondartza ondoan apartamentua errentan. 680 44 26 68.

Costa Sancti Petri-Chiclana (Cadiz). Apartamentua ematen dut errentan. Deitu gauez. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

LuzArdiden. Apartamentua errentan ematen da. Garajearekin. 943 76 72 20.

Marina d'Or (Oropesa del Mar). Apartamentua errentan. Bi igerileku. 4-6 lagunendako. 652 73 94 88.

Oñati. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi balkoi. Deitu 21:00etatik aurrera, mesedez. 943 78 10 01.

Salou. Apartamentua ematen dut errentan. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

Zarautz. Etxebizitza emango nuke errentan. Asteburuetarako, udarako eta zubietarako. Hondartzatik gertu. 685 71 84 54.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza konpartitu bateko logela bat hartuko nuke errentan. Erdialdean bada, hobeto. Deitu gauez. Maider. 650 59 93 91.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke erdiguneran. 943 76 71 67.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. 25 urtetik gorako pertsona bat behar da beste batekin etxebizitza osatzeko. 626 71 96 80.

Arrasate. Bi pertsona behar dira etxea osatzeko. 635 74 48 71 edo 616 29 08 32.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia salgai Usaetxe-Larrea plazan. 655 71 71 84.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garajea hartuko nuke errentan Aranerreka kalean. 606 27 99 62.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Antzuola. Lokala saldu edo alokatzen da. 103 m². Gremioentzako ona. 943 78 71 53.

Arrasate. 70 m²-ko lokala salgai. 943 79 76 95.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Gazte elbarritua zaintzeko emakume bat behar da, orduka. 943 76 49 72.

Bergara. Lagun bat behar da Basalgo auzoko elkartean garbiketa lanak egiteko. 615 79 98 32.

Debagoiena. Udan lan egiteko aisialdirako begiraleak behar dira. Ingelesa eta euskara jakitea beharrezkoa da. 943 76 26 29.

402. ESKAERAK

Bergara. Adineko pertsonak zaintzen lan egingo nuke, arratsaldetan. 659 98 20 17.

Bergara. Emakumea lanerako gertu. 12:30etik aurrera. Etxeko lanetan edo adinekoak. 685 70 46 97.

Bergara. Emakumea lanerako gertu. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaindu. 667 93 85 54.

Bergara. Umeak edo adineko pertsonak zainduko nituzke, arratsaldez. 610 34 97 88.

Ekonomian lizentziatuta dagoen neska gertu administrazio edo ekonomia alorreko lanetan jarduteko. Marisa. 657 70 03 22.

Neska eskaintzen da arratsaldeetan orduka umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Bego. 943 79 45 16.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeleseko eskolak ematen dira. 943 79 03 83.

Arrasate. Neska euskalduna prest ingeleseko klaseak emateko. Uda partean ere bai. 686 82 62 92.

Bergara. Eskolak emango nituzke, orain eta udan. Edozein ikasgai. 943 76 27 81.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Astra sport 200 DTI. 55.000 km. Gehigarrietan 9000 euro. 661 70 03 90.

Audi 100 2.3E autoa salgai. Oso ondo dago. Beti gidari bera izan du. Osagarriak. 4.800 euro. 629 42 36 54.

BMW F-6-50 trail motorra salgai. BKS matrikuladuna, 1998koa. 17.000 km. Bittor. 656 78 92 19.

Citroën ZX 1.9 Diesel autoa. 2.000 euro. 650 00 86 58.

Fiat Bravo 1.6 16v 103zp. 108.000 km. Osagarri guztiak. 3.000 euro. 647 98 92 05.

Ford Transit furgoneta. Prestatua dago. SS-AS. 4.500 euro. 630 62 11 84 edo 945 44 54 24.

Ford Escort autoa salgai. BI-BS matrikuladuna. Egoera onean. 665 75 18 97.

Ford Mondeo autoa. 2.5, V6. Zortzi urte. Beti garajean. 3.500 euro. 615 78 17 35.

Gas-Gas Enduro motorra salgai. 250 cm³. 1998. urtekoa. Matrikulatua. Ondo dago. 2.000 euro. 630 77 46 97.

Gas-Gas TXT 350 trialeko motorra salgai. 1995ekoa. 676 50 63 49.

Honda Transalp 600 v motorra salgai. Gauez deitu. 946 23 19 26.

Intruder Volusia 800 motorra. Bi urte ditu. Osagarri asko ditu. Oso egoera onean dago. 635 75 41 11.

Suzuki Samurai mendiko autoa salgai. Luzea. Zuntzezko sabaia. 1989koa. 3.000 euro. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 639 13 11 49.

Yamaha Virago 535 motorra. 6 urte, 15.000 km, 3.900 euro. 670 43 17 23.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Cocker arrazako txakurkumeak salgai. Gauez deitu. 943 76 52 26.

Txakurkumeak. Spaniel arrazako txakurkumeak salgai. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

703. EMAN

Setter ingeles bat oparitzen da, 6 urtekoa. 945 44 54 37.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bizikleta estatikoa salgai. Arraun funtzioarekin. Berria. 60 euro. 670 08 12 16.

Emaztegai soinekoa salgai. 42-44 neurrikoa. 480 euro. 943 08 00 81 edo 615 72 64 30.

Enkoadernatzeko makina salgai. 657 73 21 49.

Errepideko bizikleta salgai. Olmo markakoa. Campagnolo Veloce osagaiekin. Oso-oso prezio onean. 665 70 75 35.

Fotokopia makina salgai. Lamier 5227. Urtebetekoa. 1.500 kopia egin ditu. 630 32 38 00.

Lau hagun salgai. 17'. BMW M3 modelorakoak. 630 32 38 00.

Autokarabana salgai. Lau pertsonendakoa. Deitu arratsaldeko 19:00etatik aurrera. 943 79 33 91 edo 609 40 44 97.

Logela bateko altzariak: armairua eta 90 cm-ko bi ohe prezio onean salgai. 676 61 70 55 edo 659 76 06 72.

Prijon Canyon piragua. Plastikozkoa, 3,3 m. Guztiz hornituta. 656 77 82 81.

803. EMAN

Bideta. Roca Dama modeloa, taparekin. Bila joan beharko da. 943 78 62 25.

805. TRUKATU

Auto-gehigarriak. Peugeot Expert autoarendako bi aurreko eserleku eserleku plaza baten truke emango nuke. 645 72 25 24.

806. GALDU

Bergara. Pesako geltokitik Bolura bidean sakelako telefonoa galdu zaio neska bati. 943 76 28 93.

Oñati. Apirilaren 23an, larunbata, Herriko tabernatik plazara bidean betaurreko beltzak galdu nituen. 649 35 35 33.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutila beste mutil baten bila. *muxutruk9@yahoo.es.*

Bergarako Udala

BANDOA

Maiatzaren 15, 16 eta 17an, goizeko 8:00etatik aurrera Sokamutur ikuskizuna izango da Barrenkale kalean, San Martin plazan eta Munibe plazan.

Ikuskizun hau arautzen duen uztailaren 20ko 215/1993 dekretuak jasotakoari jarraituz jakinarazten da bertan ezin izango dutela parte hartu:

- 14 urtetik beherakoak direnek.
- Alkohola edo beste drogaren bat hartu izana nabarmen agertzen dutenek eta ezta osasun mentala galduta dutenek ere.

Hau dela eta, udaleko ordezkari edo langile direnek jendea ikuskizunetik baztertzeko edo sartzen ez lagatzeko ahalmena izango dute.

Bergaran, 2005eko maiatzaren 5ean.
ALKATEAK

ESKER ONA

Anastasio Arantzeta Arregi

Pilar Egizabal Askasibarren alarguna

Elgetan hil zen 2005eko maiatzaren 7an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
—
Haren aldeko meza egingo da domekan, maiatzaren 15ean, 12:00etan, Elgetako parrokian.
Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko.

Elgetan, 2005eko maiatzaren 13an.

ESKER ONA

Isidora Barguin Madarieta

Gracian Larrañagaren alarguna

Bergaran hil zen 2005eko maiatzaren 4an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko maiatzaren 13an.

ESKER ONA

Jose Luis Lete Lizarralde

Bergaran hil zen 2005eko maiatzaren 4an, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko emaztearen eta seme-alaben izenean.

Bergaran, 2005eko maiatzaren 13an.



Martitzenean, maiatzaren 17an, 25 urte beteko dira **Jabier Mendiaratx** eta **Kontxi Gallastegi** arrasatearrak ezkondu zirela. Euren zilarrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan zorionak, bikote! Isabel eta Kontxiren partetik.

Kontxes Kortabarria eta **Martxel Arkauz** oñatiarrak 1955eko maiatzaren 14 an ezkondu ziren Azkoagakoan, Aramaion. Urrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, Oñatiko San Juan elizan, eta ondoren familiakoekin bazkalduko dute. Zorionak etxekoen partetik.

Dabid eta **Noemi** arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Arrasateko parrokian. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean egingo dute eta ondoren, eztei bidaian, Argentinara joango dira. Zorionak bikote, koadrilakoen partetik.

Asier Ziarsolo eta **Nerea Gallastegi** bergararrak joan den egubakoitzean, maiatzak 6, ezkondu ziren Bergarako epaitegian. Etxekoekin batera egin zuten gero bazkaria Zumarragan eta orain eztei bidaian daude. Zorionak, bioi, etxekoen eta lagunen partetik!



Koro Bengoa eta **Francisco Casas** arrasatearrak 1980ko maiatzaren 17an ezkondu ziren, Dorletan. Zilarrezko ezteiak betetzen dituzten honetan zorionak seme-alaben partetik.



Iñaki Umerez eta **Tere Olabarria** bergararrak ezkondu zirela 25 urte bete dira. Domekan, maiatzaren 15ean, familiakoekin ospatuko dute. Zorionak guztien partetik!

ESKER ONA

Milagros Orobengoa Beitia

Aretxabaletan hil zen 2005eko apirilaren 30ean, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2005eko maiatzaren 13an.

ESKELA

Miel Biain Kortabarria

Oñatiko Udal Txistulari Bandako kidea

Oñatin hil zen 2005eko maiatzaren 7an

Zure lekukoa jaso dugu,
ez adiorik,
gero arte baizik.

Arrasateko txistulariak.
Arrasaten, 2005eko maiatzaren 13an.

MEZA

Ines Balsera Rodriguez

Eladio Sanchez Caceresen alarguna

2005eko apirilaren 13an hil zen, 82 urte zituela. G.b.

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 15ean,
11:30ean, Antzuolako parrokian.

Semeek: Cándido, Diego, Encarnación, Jose M. (†) eta Manuel Eladio (†); ezkon seme-alabek: M. Angeles, Amina, Ana eta Gabriel; bilobek: Eva, Manolo eta M. Carmen, Gorka, Youssef, Hamit, Joanna, Fran, Cris eta Raúl, Mónica eta Marcos, Alex; birbilobek: Asier eta Aizira. Anai-arrebek: Visitación eta Diego; lehengusuek eta gainerako senitartekoek elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkizuete.

URTEURRENA

Basili Garai Santa Kruz

Alejandro Agirreren alarguna

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, maiatzaren 14an,
20:00etan,
Bergarako San Lorentzoko ermita.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Elisa Gantxegi Telleria

Jose Mayora Aldazabalen (*Mostei*) alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 22an,
12:00etan, Osintxuko San Emeterio
eta San Zeledonio elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Martina Oruesagasti Igartua

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Maria Imaz Bastarrika



Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Gillermi Llano Etxegibel

Laugarren urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 15ean, 12:00etan,
Aretxabaletako parrokian.

—

Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Gregoria Gomez Batalla

Goya

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 15ean,
12:00etan,
Eskoriatzako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

IRAGARPENA

ZAPATUA, 14

Goiz partean zerua hodeitsu, eta tarteka oso hodeitsu, egongo da eta ekaitz zaparradak eror daitezke. Egunean zehar hodei-gune hori urritzen joango da, eta euri gutxiago egingo du. Haizeak mendebaldetik joko du ahul. Tenperaturan ez da aldaketa nabarmenik egongo.

DOMEKA, 15

Goizaldean zerua hodeitsu egongo da, eta euri arina egingo du. Arratsalde-gauean hodeiak ugaritu eta egunaren amaierarako trumoiak eta euri zaparradak izango dira nagusi. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da. Tenperaturak ez du aldetarik izango.

ORTZADARRA

Kolore anitzeko fenomenoa

Euria egitean edo egin ondoren, eguzkiaren parean gertatzen den uztai argitsua da ortzadarra. Zazpi kolorez osatua dago eta eguzkiaren argia euri tantetan islatzen denean gertatzen da.

Azalpen meteorologikoak ez, baina, azalpen zientifikoak argituko digu ortzadarraren jatorria. Ostadarrean ikus ditzakegun koloreak euri tantetan, eguzkiaren argiak izaten duen errefrakzioz eta barne islaren ondorioz sortzen dira. Koloreak espektroan duen uhin luzeraren arabera zerrendetan ordenatuak agertzen dira. Bi uztai argitsu gertatzen dira: Barnealdean ikusten denak asko argitzen du eta uztai primario deitzen zaio; 42 gradu inguruko angelu erradiala izaten du eta kanpoaldetik barnealdera gorri, laranja, hori, berde, urdin, anil, eta more koloreko zazpi lerro izaten ditu. Kanpoaldeak, berriz, argitasun ahulagoa du eta uztai sekundario deitzen zaio; haren erradio-angeluak 50 gradu izaten ditu gutxi gorabehera, eta koloreak alderantzizko ordenan izaten ditu. Euskal Herrian hainbat izen hartzen ditu: ortzadarra, ostadarra, ostilika, ostarkua, Erromako zubia…

Honako erakunde hauek emandako informazioa:

euskalmet
euskal meteorologi agentzia

aurrera doan herria
un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

www.euskalmet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma



		Isilik, mutu *Izena			Bakarra, bakarrik Infin., lortu			Haur txikiak
		Hartu Etekin, irabazi						
Daukagu Haserrekor		Hurbil (Bizkaian) Fereka (Ipar)					Nitrogenoa Bi elektrodo	
					501 Roentgen			
*Deitura Haiek berak								
					…egin, erabat ase Euskal kirola			
Jarrera	Erbioaren ikurra Zapi, ehun			Paladioa Nafarroa Behereko udalerria				Amama
Kasik, abantzu Euskal Herria.			Aluminioa Eguzki				Mila Putre	
		Erraz, maneiakor Atzizki femeninoa						
Sarritan, maiz Erabat bustita								
				Gipuzkoako udalerria				

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Eguzkia eta azal zuria

Aurkene naiz. Jaiak datozela eta eguzkia hartzea nahi dut, baina eguzkia hartzen dudan bakoitzean azala erre egiten zait eta nik beltzaran egon nahi dut. Beltzaran egoteko eta azala ez erretzeko azenarioa jatea gomendatu didate. Hori egia den galdetu nahi dizut.

Ez didazu esan zure azala nolakoa den, baina oso erraz erretzen bazara litekeena da azal zuriduna izatea. Azenarioa betakaroteno bat da (A probitamina), zurgatu ondoren organismoak A bitamina bihurtuko duena. Aldi berean, melanina produkzioa aktibatuko du. Melanina kolore beltzarana ematen digun sustantzia da.

Dena dela, egia da azenarioak beltzaran jartzen lagunduko dizula, baina ez baduzu azala behar duzun kremarekin babesten erre egingo zara.

Hurrengo astera arte.

Marisabel Hurtado
Dermatizista

UMOREGIROAN

Kike Amonarriz

LARRITASUNA
Zakur hau ero moduan dabil korrika batera eta bestera basamortu erdian. Arnasestuka eta zaunka egiteko ere gai ez dela geratu eta oihuka:

– Nekabendioro! Ez badiat zuhaitz bat bost minutu baino lehen aurkitzen, gainean egingo dut txiza.

EUSKALDUNAK BASAMORTUAN
Bakoitzari bere aldetik, Afrika iparraldeko basamortua alderik alde zeharkatzea otu zaie bi euskaldun hauei. Elkarren berri ez dutela, bata Egiptotik abiatu da eta bestea, berriz, Saharatik. Inpentsan, Libiako lurretan egin dute topo elkarrekin:

– Egunon!

– Egunon!

Harrituta begiratu diote elkarri:

– Euskalduna?

– Bai, euskalduna!

Biak elkartu eta hegoalderako bideari ekin diote. 100 bat kilometro egindakoan:

– Bero!

– Bai, bero!

Eta 200 kilometro urrutiago:

– Egarri?

– Bai!

Oasi txiki bat aurkitu eta egarria ase dutenean:

– Abertzalea?

– Bai, abertzalea!

Beste 200 kilometro elkarrekin egin ondoren:

– HB?

– Ez, PNV.

Eta nork bere bideari heldu zion.

BARREGARRI
Maitanek Imanoli, herriko bestetan koadrilarekin egindako afaritik bueltan etxerako bidean:

– Zure gaurko jarrera benetan barregarria izan da. Ez al zen inor konturatuko edan gabe zeundela!

SOLUZIOA



ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

ASPEren ESKAINTZA BEREZIA

'Asteleheneko Goienkaria'-ko irakurleendako

ASPEk 'Asteleheneko Goienkaria'-ko harpidedun eta irakurleendako eskaintza berezia prestatu du.
Orain, ASPEko materiala esku-eskura izango duzu: %30eko beherapena eta, gainera, oparia pertsonalizatzeko aukera!

PILOTA
- Aspeko pilotari batek sinatua.
- Narruzkoa.

30€* pilota bat

KAMISETA
- Zure izenarekin edo ASPEko pilotari batenarekin.

40 €*

PRAKAK

35 €*

* Produktuen prezioetan deskontua aplikatuta dago.

aspepelota.com

ASPEko pilotariak:
Apeztegia, Arizmendi, Arroyoll, Auxkin, Baleztena, Barriola, Berna, Berraondo, Capellan, Chafee, Del Rey, Elkoro, Etxaniz, Eugi, Eulate, Galarza VI, Galarza V, Gonzalez, Goñi III, Lasa III, Laskurain, Mtnez. de Irujo, Nalda III, Pascual, Titin III, Urberuaga, Xala, Zubieta.

Harpidetu zaitez edo erosi Asteleheneko Goienkaria kioskoan eta...

ASPEko produktuak
%30eko deskontuarekin eta pertsonalizatuta
lortu ahal izango dituzu.

ZOZKETAK

Zozketan parte hartzeko baldintzak:
- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:
Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**

042 zozketa: maiatzaren 9a

ZORIONAK IRABAZLEEI!
Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, zorionak!

Elgetako ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN, maiatzak 13, 14 eta 15ean izango diren MAGIA MOSTRARAKO bi sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- Felix Zubia (Arrasate)
- Estela Biain (Oñati)

EUSKAL SELEKZIOAREN bideojokoa eta bufanda.
- Anabel Altuna (Bergara)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).
- Arantzazu Isasmendi (Arrasate)
- Angel Txintxurreta (Arrasate)

043 zozketarako sariak

- **WERLISA** argazki kamera digitala.
- **EIBAR-SPORTING** futbol partidua ikusteko sei gonbidapen. (saridun bakoitzarendako bi)
- Maiatzak 22an , Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **ROGELIO BOTANZ** eta **ALFONSO SASTREREN** ikuskizunerako bi sarrera (saridun bakoitzarendako bi).



‘Ilunpean’

EGUBAKOITZA, 13 / **21:00 eta 22:30**

Joseba Apaolaza aktoreari elkarrizketa ‘Ilunpean’

Aktore ezaguna da Joseba Apaolaza gurean. Arrakasta handiko telebista saioetan eta antzezlanetan hartu du parte. Oihana Elortza kazetariak lan horien gaineko galderak egingo dizkio, besteak beste, gaur *Ilunpean* saioan.

‘Jaiak 2005’

MARTITZENA, 17 / **21:00 eta 23:00**

Bergarako Pentekoste jaietako giroa ikusgai ‘GOITB’-n

Beste behin ere Goiena Telebistako langileak jaietan ibiliko dira. Bergarako Pentekoste jaiek estreinatuko dute *Jaiak 2005* saioa. Kepa Errastik eta Ainhoa Alberdik sokamuturreko, herri bazkariko, eta abarreko giroa ekarriko digute etxera.

‘Dantza’

MARTITZENA, 17 / **21:30 eta 23:30**

XXVIII. Euskadiko Dantza Suelto Txapelketa, Bergaran

Bergarako Abarka dantza taldeak antolatuta, 15 urtez azpiko bikote-entzat dantza suelto txapelketa ospatuko da domeka arratsaldean San Martin plazan. Goizeko saioan sailkatutako 12 bikote lehiatuko dira arratsaldean.

‘Auñamendietan’

EGUAZTENA, 18 / **21:00 eta 22:30**

Tuc de Salanatik esango digu agur ‘Auñemendietan’ saioak

Tuc de Salana (2.482) izeneko mendian izango dira oraingoan Pello Cabestany eta taldekideak. Kataluniako Pirinioetan dagoen Val d’Aran-en egingo dute Auñamendietako azken saioa. 13 kapitulu eta gero agur esango digute.

TELEBERRIAK

Bergarako jaien gaineko berezia Goiena Telebistan

Oraingo asteburuan ospatzen dira Bergarako Mendekoste jaiak eta GOITBk aurten ere jaietako saio bereziei ekingo die. Jaietan Bergaran izango dira kameralari eta erreportariak (Kepa Errasti eta Ainhoa Alberdi) eta ekitaldi nabarmenenenak grabatuko dituzte. Hartutako irudiekin osatutako saioa, *Jaiak 05*, martitzenean eskainiko dute iluntzeko albistegiaren ostean.

ETB telebista autonomiko onena

Madrileko *Cambio 16* aldizkariak telebistaren gaineko sariak banatu berri ditu eta ETBri eman diote telebista autonomiko onenarena. Edukien kalitateagatik, interes orokorrak eta bertako interesak uztartzeko erakutsitako dohainagatik eta profesionalen mintegi bikaina izateagatik eman diote saria ETBri.

Telebista kate pribatuek ez dute araudia betetzen

Espainiako kateek txikienendako eskaintzen dituzten saioetako edukiak aztertzen dituen Txikien defendatzaileak esan du telebista kateek ez dituztela betetzen arauak. Esan du eduki sexistak, biolentoak eta zakarrak maiz agertzen direla umeendako saioetan eta sarritan umeei erakusten dietela indarkeria dela arazoak konpontzeko modua.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Maiatzaren 13tik 19ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 13	ZAPATUA 14	DOMEKA 15	ASTELEHENA 16	MARTITZENA 17	EGUAZTENA 18	EGUENA 19
13:20 **Baneki**	11:05 **Behazulo**	11:05 **Filma:** Moby Dick	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade	13:20 **Baneki**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade	13:50 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla
13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade	11:35 **Baneki**	12:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla	14:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki	13:50 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla	14:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki	14:15 **Berriak Aurrerapena**
14:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki	12:00 **Marrazki bizidunak:** Sherezade	12:55 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki	14:15 **Berriak Aurrerapena**	14:15 **Berriak Aurrerapena**	14:15 **Berriak Aurrerapena**	14:30 **Auñamendietan**
14:15 **Berriak Aurrerapena**	13:10 **Baneki**	13:10 **Bertsolaritza**	14:30 **Ilunpean**	14:30 **Harmailatik**	14:30 **Jaiak 2005**	15:00 **Jaun ta jabe**
14:30 **Behazulo**	13:40 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki	13:45 **Auñamendietan**	15:00 **Eguzki lore**	15:00 **Txirrindularitza:** Loinaz Txrrindularitza proba	15:00 **Dantza Suelto Txapelketa**	15:30 **Berriak Aurrerapena**
15:00 **Auñamendietan**	14:00 **Ilunpean**	14:15 **Eguzki lore**	15:30 **Berriak Aurrerapena**	15:30 **Berriak Aurrerapena**	16:00 **Berriak Aurrerapena**	15:45 **Klip@**
15:30 **Berriak Aurrerapena**	14:30 **Auñamendietan**	14:45 **Filma:** Moby Dick	15:45 **Klip@**	15:45 **Klip@**	16:15 **Klip@**	
15:45 **Klip@**	15:00 **Filma:** Moby Dick	15:30 **Auñamendietan**	19:30 **Emisio hasiera**	19:35 **Gaurkoak**	19:35 **Gaurkoak**	
19:35 **Gaurkoak**	16:00 **Eguzki Lore**	16:00 **Marrazki bizidunak:** Sherezade	19:35 **Gaurkoak**	19:45 **Klip@**	19:45 **Klip@**	19:35 **Gaurkoak**
19:45 **Klip@**	16:30 **Jaun ta jabe**	17:40 **Klip@**	19:45 **Klip@**	20:00 **Berriak**	20:00 **Berriak**	19:45 **Klip@**
20:00 **Berriak**	17:00 **Klip@**	18:00 **Baneki**	20:00 **Berriak**	20:30 **Marrazki bizidunak**	20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki	20:00 **Berriak**
20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki	17:15 **Behazulo**	18:30 **Jaun ta jabe**	20:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki	21:00 **Jaiak 2005:** Bergarako jaiak	21:00 **Auñamendietan**	20:30 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla
21:00 **Ilunpean**	17:45 **Debarri:** Aretxabaleta	19:00 **Ilunpean**	21:00 **Baneki**	21:30 **Dantza Suelto Txapelketa**	21:30 **Jaun ta jabe**	21:00 **Baneki**
21:30 **Eguzki lore**	18:45 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla	19:30 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla	21:30 **Harmailatik**	22:30 **Berriak**	22:00 **Berriak**	21:30 **Behazulo**
22:00 **Berriak**	19:30 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki	20:15 **Baneki**	22:00 **Berriak**	23:00 **Jaiak 2005**	22:30 **Auñamendietan**	22:00 **Berriak**
22:30 **Ilunpean**	19:50 **Auñamendietan**	20:45 **Debarri:** Aretxabaleta	22:30 **Auñamendietan**	23:30 **Dantza Suelto Txapelketa**	23:00 **Jaun ta jabe**	22:30 **Auñamendietan**
23:00 **Eguzki lore**	20:20 **Bertsolaritza**	21:45 **Emisio amaiera**	23:00 **Harmailatik**	00:30 **Gaurkoak**	23:30 **Gaurkoak**	23:00 **Behazulo**
23:30 **Gaurkoak**	20:45 **Emisio amaiera**		23:30 **Gaurkoak**	00:40 **Emisio amaiera**	23:45 **Emisio amaiera**	23:30 **Gaurkoak**
23:45 **Emisio amaiera**			23:45 **Emisio amaiera**			23:45 **Emisio amaiera**
13:20 **Baneki**	15:05 **Filma: Moby Dick**	20:45 **Debarri**	21:30 **Harmailatik**	21:00 **Jaiak 2005: Bergara**	21:30 **Jaun ta jabe**	21:30 **Behazulo**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

KAMERAAURREAN

“Gure biztanleria kontuan hartuta, uste dut beharrezkoa dugula bailara mailako egoitza bat. Leku txukun baten egin beharko litzateke eta Aretxabaletak badu horretarako tokia”.

Pablo Txintxurreta / Aretxabaleta institutuko zuzendaria ‘Debarri’ (2005/05/10)

“Debagoienera batez ere turista euskaldunak etortzen dira, horregatik BEC moduko azokak erakusleiho bikainak izaten dira guretzako”.

Ana Heriz / Mankomunitateko turismo arduraduna ‘Berriak’ (2005/05/11)

TELEBEGI/ Oihana Elortza

315 kilometro orduko

Neuk ere ikusi nuen joan den domekan Montmeloko Formula 1eko auto lasterketa. Azkenaldian ia futbolaz beste entzuten ditut lagunak auto lasterketen inguruan hitz egiten eta domekan konturatu nintzen benetan hitz egiten dutela, gainera. Asier eta Nora lagunek paseoa azkar egin nahi zutela esan zidaten, goiz bazkaldu, telebista aurrean jarri eta Shumacher, Alonso, Raikonnen eta gainerako auto gidarien abileziak ikusteko.

***Alonsomania* fenomenoak ikusle asko erakarri ei ditu Formula 1eko auto lasterketak ikustera, baina uste dut Tele 5k ere asmatu duela lasterketa horien emanaldiak egiteko moduan. Egia da kazetariak eta esatariak emozionatu egiten direla astuariarraren saiakera bakoitzean, baina ez dute lasterketaren emankizun soila bakarrik egiten. Kazetaria bertan dagoela ikusten dugu eta zirkuituaren bazterrak eta datuak erakusteaz gain, kalean aurrez jaso dituzten iritzi eta inpresioak ere bota izan dituzte. Uste dut ondo egiten dutela lan hori. Nik, behintzat, gustuko dut.**

HARATEGI HAUETAN SOILIK!

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
BAIMENDUTAKO HARATEGIA
EUSKO LABEL
KALITATEA

ANTZUOLA
- Gabilondo Arregi harategia (A)
  Kalebarren 14

ARAMAIO
- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
  Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE
- Landaluze harategia (A)
  Iturriotz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
  Olarte 20
- Azpilikueta harategia (A)
  Bañez doktorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
  Erguin 12
- Kortaberri harategia (A)
  Antxo Abarka 1

BERGARA
- Andres Mujika harategia (A)
  Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
  Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
  Espoloia 12

ESKORIATZA
- Zubia harategia (B)
  Santa Ana 11

OÑATI
- Antxon harategia (A)
  San Lorentzo 5
- Tarsicio harategia (B)
  Portu 2
- Garai harategia (A)
  Maiatzaren Lehena plaza 2
- Super BM Oñati harategia (B)
  Olakua 8

(A) ARTISAUAK: Baimendua izateaz gain, Euskal Okelaren eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

(B) BAIMENDUAK: Euskal Okela saltzeko Hartegi Baimenduak.



ERROMERIAKO DANTZAK IKASTAROA

**San Juanetan, 24an,
antolatu den erromerian dantza egiteko.**

Maiatzaren 27tik ekainaren 17ra
Ostiraletan, 19:00etatik 20:30era
Lore Gazteak taldearen lokalean
Matrikula: 6 euro

Animatu eta parte hartu!

IZENEMATEAK: GAZTE BULEGOA • 943 77 00 65 • *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
EGUBAKOITZA, 2005eko maiatzaren 13a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Joseba Gastiain/ Artisaua

Zerekin egiten dituzu txirulak eta albokak? Egurrarekin. Txirulak egiteko, adibidez, egur berezia behar da, hemengoa baino gogorragoa. Hego Amerikako eta Afrikako egurra erabiltzen dut txirularen gorputza egiteko. Takoa egiteko, ordea, bigunagoa erabiltzen dut, gogortasun berdina badute ez delako ondo egokitzen.

Beste berezitasunik behar du egurrak?

Lehorra egotea. Baina ez bezperan lehortutakoa, urtetan lehortzen egondako egurrak behar dira forma eta neurria ez galtzeko.

Zenbat denbora behar duzu txirula bat egiteko?

Zortzi edo hamar batera egiten ditut, ez dut bat hasi eta bukatu arte horrekin bakarrik lan egiten. Asko hasten ditut batera eta poliki-poliki bukatzen ditut.

Norendako egiten dituzu?

Enkarguak jasotzen ditut. Txistulari taldeen enkarguak, adibidez.

Gustatzen zaidalako eta zaletasuna dudalako egiten ditut; oso jende gutxik erosten ditu txirulak edo albokak.

Enkargu asko izaten dituzu?

Orain, adibidez, Kataluniako lagun batek takoak egiteko eskatu dit. Baina lehen baino txirula eskaera gutxiago izaten ditut, egia esan. Albokak, aldiz, dezente egiten ditut oraindik, jendeak eskatzen ditu eta.

Zenbat alboka dituzu?

Bat, adibidez, Txilibrin Bizkaiko albokariaren alboka da. Ez zegoen oso egoera onean eta konpondu egin dut; kainaberazko tutuak kendu eta egur hobearekin egindako beste batzuk jarri dizkiot eta adarrak ere aldatu egin dizkiot. Gainerakoak neuk diseinatutakoak dira.

Notak egitea ere ez da erraza izango, ezta?

Oso zaila da. Zuloak egiten dizkiot txirula bati eta gero ikusi behar ze doinu ateratzen duen. Proba asko egiten ditut sarritan eta lortutakoan paper baten apuntatzen ditut neurriak.

Bestalde, zaila da ondo afinatzea eta orain afinatzeko aparailu bat dut lan horretan laguntzeko. Honekin albokak, txirulak, gitarrak edo beste edozein instrumentu afinatzen dira.

Noiz hasi zinen txirulak eta albokak egiten?

Orain 20 urte inguru.

Eta zeuk badakizu bata eta bestea jotzen?

Oraintxe ari naiz alboka jotzen ikasten. Arrasaten egiten duten ikastarora joaten naiz zapatuetan. Bi urte daramatzat eta gustura nabil. Arnasa ondo hartzen ikasi behar dut.

Beste herrialdeetako instrumentuen anztekoak ere egiten dituzu?

Eibarren bizi den galiziar bat eta biok gabiltza orain Irlandan eta Eskozian jotzen duten alboka egiten, asmatzen. Zortzikoa da, *sol*-etik *sol*-era doa alboka horren eskala eta nota zuzenak egitea zaila da oso.

Eskuaz gain belarria ere ona behar da, orduan.

Bai, biak behar dira.

"Lehen txirula gehiago eskatzen zizkidaten baina orain alboka dezente egiten ditut"

"Hego Amerikako eta Afrikako egur gogorrekin egiten dut txirularen gorputza eta takoa, berriz, bigunagoarekin"

"Duela 20 urte hasi nintzen zaletasun honekin eta orain jotzen ikasten ari naiz"

► *Antzuola/ 50 urte / Txirulak eta albokak egiten ditu*

PIPERRAUTSA

Plangintza II

Joan den astekoaren haritik, nahi nuke apur bat sakondu eta proposamenen bat egin.

Debagoienak baditu osagai batzuk bateratasuna bultzatzen dutenak: MCC taldea ibarrean dago errotuta eta barreiatuta, berdintsu unibertsitateko hiru campusak, Goiena komunikazio taldea, edo kirol eta gizarte mugimenduetan dauden gune bateratuak. Bidean den Garaia poloak ere ibar osoan eragingo du eta arlo askotan: hezkuntzan, industrian, kulturan eta elkarbizitzan, besteak beste.

Orain datorren Eskualdeko Lurralde Plana ere errealitate horretan oinarritzen da: badago zona bat bateratsu funtzionatzen duena, "eremu funtzional" bat. Eremu hori murgilduta dago indar eragile handiko ekimenetan, Garaia bera, tranbia edo autopista, eta ekimen horiek eraldatu egin dezakete ibarra, onerako eta txarrerako. Horregatik, kalte balizkoak murrizteko eta onurak areagotzeko, behar da aldaketaren kudeaketa egokia, bertakoek gidatua.

Mankomunitateak badu Garapen Agentzia bat, baina ez dakit zertan den. Beharko luke enpresa publiko bat, talde tekniko profesionalarekin, zehazteko hilabete gutxiren bueltan diagnostiko eta egutegi bat, hurrengo hamar urtetarako. Hor josiko lirateke ekimen guztiak elkarren osagarri izateko, hor ezkonduko lirateke interes lokalak ibarrekoekin eta orokorragoekin. Hortik gidatuko litzateke ibarra etorkizunerantz.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR